

Herririk Herri |3|

Mallabiko alkate izandako Juan Luis Pagaldai kartzelan sartu dabe

Ekonomia |10|

MZko langileak 44 lagun kaleratzeko enplegu-erregulazioaren kontra



Berbaz |9|

Anis Hawari: "Gazan azken asteotan gertatutakoa genozidioa izan da".

Lanpostuen zerrenda onartu dau Udalak

Atxondo • Udalaren aholkularitza zerbitzuak egindako azterketaren ondorioz lau lanpostu desagertu eta beste bost lehiaketa publikoan jartzea jasotzen dauen zerrenda onartu dabe. **4**

Joshua Froufe Hiltegiko oholtzara igoko da berriro

KULTURA • Abenduan, Hiltegi gaztetxean jantzi eban Joshua Froufe berritar gazteak bere abestiak disko batean grabatzeko saria. Gaur eta otsailaren 6an berriro igoko da Hiltegiko oholtzara. **13**

Elorrion 30 urte daroez bizikletarako grina pizteko lanean

KIROLA • Elorrioko Txirrindulari Elkarteak 30 urte beteko ditu aurten. Ziklo-krossean zein errepidean korritzen dabe kadeteek, eta baleiteke aurten belodromorako pausoa be emotea. **23**



•Durangaldea

Haizeteak argindar zerbitzuan arazo ugari sortu dau **3**

•Elorrio

Kirol zerbitzuari buruzko azterketa egingo dau Udalak **8**

•Garai

Espalbia herrigune osora zabaldu gura dabe **6**

Barrenetxea-Arandok alkate kargua itziko dau

Zaldibarko EAJk Idoia Mendiolarai proposatu dau Barrenetxea-Arandoren lekukoa hartzeko.

Azken 10 urteotan alkate izan den Igor Barrenetxea-Arandok Bizkailur sozietate publikoan jardungo dau.

EAJk proposatutako kargu aldaketari udalbatzarrak oneritzia emotea da hurrengo pausoa. **2**



Alkate kargua itziko dauen arren, Igor Barrenetxea-Arandok zinegotzi izaten jarraituko dau. Iban Gorriti



maderas

ONAGOTTIA

egurrak

ELORRIO - MARKINA Tel. 94 658 25 24 - 605 77 01 78

HERRIRIK HERRI >

ZALDIBAR

Mendiolagarai proposatu dabe alkate kargua hartu daian

Kargua izteko arrazoiak azaldu ditu hamarkada batean alkate izan den Barrenetxea-Arandok

Idoia Mendiolagarai, alderdi jeltzaleak hauteskondeetara aurkeztu eban zerrendan hirugarren joan zen emakumea proposatu dau jeltzaleen Zaldibarko batzordeak. Herriko batzokian egindako agerraldian, azken 10 urteotan alkate izan den Igor Barrenetxea-Arando, Nerea Garitagoitia alkateordea, EAJko batzorde buru Alberto Aranzibia, eta alkate izateko aurkeztuko daben Idoia Mendiolagarai izan dira.

Azkenengo hamarkada honetan Zaldibarko alkate karguan jardun dauen Igor Barrenetxea-Arandok berrikuntza eta sustapen ekonomikoa bultzatzeko sortutako Bizkaiko Aldundiko Bizkailur sozietatean jarduteko eskaintza onartu dauenez, "Udaleko karguen berrantolaketa" egin dabela azaldu dau, prentsaren aurrean, EAJko udal batzordearen izenean Alberto Aranzibia presidenteak.

Ilusinoz eta lanerako gogoz Azkenengo legegintzaldi honetan Zaldibarko Udalean bete dauen zinegotzi karguagaz lez, "ilusinoz eta lanerako gogoz" hartuko dauela alkatetza azaldu dau Mendiolagarai. Azken urteetan egin daben moduan, talde lana oinarri hartuta jardungo dauela aurreratu dau Idoia Mendiolagarai.

"Udaleko karguak berrantolatu" egin ditueela azaldu dau jeltzaleen udal batzordeko presidenteak

Udaleko Batzorde jeltzaleak beragan jarritako konfidantza eskertu gura izan dau alkate barria izango den eta horretan lanaldi osoko dedikazioaz jardungo dauen 47 urteko emakume zaldibartarrak; Bizkaiko Batzar Nagusietan be badiharduenak.



Idoia Mendiolagarai eta Igor Barrenetxea-Arando, eguazteneko agerraldian. I.Gorriti

Udaleko Gobernu Taldea osatzen daben beste alderdiekin adostu dabenez, udalbatzarrean aurkeztuko ditue bai Barrenetxea-Arandoren kargu iztea bai Mendiolagarairen kargu-hartzea

Bizkailur sozietatearen eskaintza onartu eta alkate kargua itzi dau Igor Barrenetxea-Arandok

be. Kargu-iztea asteen aurkeztu daben Barrenetxea-Arandok "herriagazko konpromisoa bardin mantenduko" dauela dino, eta zinegotzi lez arituko dela aurrerantzean be. ■ I.E.

Herrigunerako sarbideko lanak finantzatzeko dirua

Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoko diru laguntza herrirako sarbidera bideratuko dabe

Aho batez onartu eben joan zen egueneko udalbatzarrean Udalean ordezkarietza daukien alderdiek herrirako sarbidean egiten dihardueen lanak finantzatzera bideratzea Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoko diru-laguntzatik jasotzea itxaroten daben dirua.

Herrigunerako sarreran egiten dihardueen lanen hirugarren faseko lanetara bideratuko dabe Estatuaren diru-laguntza

Estatu espainiarrak esleitzera itxaroten daben 511.000 euroko diru-laguntza herrirako sarbide barria egokitzeko Udalak daukan proiektua aurrera eroateko bideratuko dabela jakinarazo dau Gobernu Taldeak. Holantxe adostu eben Udaleko alderdi politiko

guztietako ordezkariak, ahobatez.

Hain zuzen be, herrirako sarbideko lanen hirugarren fasea da diru kopuru horregaz finantzatzeko bideratu dabena. Guztira (hiru faseen kostua batuta), 6 milioi euroko aurrekontua daukien lanak dira aitatu doguzenak.

Hiru fasetan banatutako lanon bigarren zatia bukatzen dabilz orain. Horreei ekin eutsien azaroan, eta belar artifizialeko Solobarría futbol-zelaia joan zen urrian inauguratu ebenetik hondarrezko zelai zaharra zegoen lekuan biribilgunea egiten dabilz.

Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondotik diru-laguntza izango dabela aurreikusita dabe Olazar, Zubiaurre, Autonomia eta Foru kaleak sarbide barriagaz lotzeko, eta amaitutzat emongo ditue horrenbestez herrirako sarbideko lanak. ■ I.E.

IURRETA

Barriztutako webgunea aurkeztu dau Udalak

Udaleko zein herriko hainbat informazio batu dabe www.iurreta.net orrialdean

Udalaren webgunea erabarritu dabe "erakargarriagoa" eta "dinamikagoa" egin guran. Webgunea herritarrengana hurreratzeko "beste bide bat" dela ikusita egin ditue aldaketak, herriari buruzko informazioa eskuratzeko eta hainbat tramite "erosotasunez" egiteko aukera eskainiz. Asteon egin dabe aurkezpena.

Herriko albiste nagusiak jasoko dituen sarrera pantaila ikusiko dau erabiltzaileak www.iurreta.net helbidean sartzetarako momentuan. Era berean, orrialdearen ezker aldean eta

Egindako aldaketek webgunea "erakargarriagoa" eta "dinamikagoa" egitea izan dabe helburu nagusi

goikaldean hainbat atal batzen dituen menu nagusia bistaratu dabe. Besteak beste, zerbitzuei, azpiegiturei eta garraioei buruzko informazioa batu dabe *Bizi* atalean, eta, herriari buruzkoa *Ezagutu* atalean. Udalar buruzko informazioa eta horregaz hartu-emonean jartzeko aukerak batu ditue, barriz, *Udala* eta *Tramiteak* sailletan.

Linkak eta agenda

Bestelako zerbitzuen artean aita-tu daigun hainbat erakundetarako linkak —Osakidetza, Durangaldeko Mankomunitatea, Bizkaibus...— be topatuko dituela erabiltzaileak. Era berean, Udalak eze herriko elkarteek antolatutako ekintzak, ikastaroak... batzen dituen agenda bisitatzeko modua be izango da. ■ A.B.

Usurpazioa egotzi deustie gazte bati

Bilboko adin txikikoen epaitegian epaituko dabe, astelehenan, Iurretako gazte bat, "usurpazio delitua" egotzita. Ustez frontoi alboko etxola usurpazioa egotzen deustie. 2007ko udabarri inguruan okupatu eben etxola hori Iurretako hainbat gazte, herriko gaztetxe barria haxe izateko asmoz.

Gazte Asanbladako 10 kidek deklaratu eben orduan Durangoko Auzitegian, "usurpazio delitua" egotzita; arrazoi beragaitik adin txikiko gazteak be deklaratu eban, Bilbon. Gainerako 10 bat gazteren kontrako prozedurak artxibatu ditue.

Elkarretaratzea

"Gazteon aurkako kriminalizazioa" salatu eta "elkartasunik beroena" adierazteko, astelehenan 11:00etan kontzentrazioa egingo dabe Iurretako monitoian; gero Bilbora joango dira.



DURANGALDEA

Haizeak euriak baino kalte handiagoa eragin deusku

Mallabiko eta Garaiko toki batzuetan, esaterako, lau-bost egunetan egon dira argindar barik

baiek gainezka egin ondoren, Bilbo aldean estu ibili ziren martitzenean. Durangaldean be, Ibaizabal eta Mañaria erreketan urak haserre jaitsi ziren egun osoan, baina ez eben aparteko arazorik sortu. Hemen gehiago eragin eban asteburuko haize zakarrak.

Iragarritakoa betez, bariku gaua eta zapatu goizaldea oso haitzsuak izan ziren. Orduantxe joan zen argindarra herririk gehienetan. Toki batzuetan zapatu eguerdirako bueltatu zen. Mallabian, Mañarian, Garain, Oromiño auzoan eta Zelaietan, ordea, luza-roago egon ziren argindarrik barik.

Mallabiko herrigunean argi barik egon ziren domeka goizera arte. Auzoetako etxebizitza batzuetan, barriz, eguaztenean oraindi-

no argindar barik zegozen. Eguaztenean zehar etorri zen argia Garaiko toki batzuetan be; Goierri auzoan, esaterako.

Iberdrolak argindarra epe laburrean berrezarriko ebal esan arren, toki batzuetan egunetan egon dira argi barik

Iurretako Oromiño auzoan astelehen iluntzera arte ez zen argirik etorri. Mañarian be asteburu osoa egon ziren argi barik. Abadiñori jagokonez, Matienan zapatu goizean zehar itzuli zen, baina ez zen halan gertatu Zelaietan eta Muntzaratzen, domeka arratsaldera arte ez zen-eta bueltatu. Berrizko Andikoa auzoan

martitzen goizean berreskuratu eben argia eta Sarriako etxebizitza batzuk, aldiz, martitzen gauen.

Guztira, argindar arazoek 200.000 lagun eragin deuskie. Herritar asko kexu ziren, Iberdrolak arazoak epe laburrean konponduko zituela agindu arren, egunotan egon zirelako argi barik.

Javier Zalbidea Iberdrolako arduradunaren esanetan, "eguen goizerako argindarra berrezarriko egon da toki guztietan. Baleiteke etxebizitza jakin batzuk geratzea; horreek egin behar dabena da deitu, kaltea identifikatu eta konpondu daigun". 600 lagun ibili ei dira konponketa lanean.

Haizeak pinuak be botazituen. Esaterako, Trabakutik Mallabirako bidea trabatu eben. Zorionez, ez eben kalte pertsonalik eragin, pinudiko jabeak hartuko eban disgustua aparte itzita. Hori bai, bidea itxita egon zen zapatu osoan. ■ J.D.



Trabakutik Mallabirako bidera pinu asko jausi ziren haizeak botata. M.Gonzalez

MALLABIA

Pagaldai abenduan kartzelan sartu dabe

Orain hamalau urte mallabitarrei ostutako 391.303,12 euroak ez ditu oraindino bueltatu

Juan Luis Pagaldai Barruetabeña, 1987tik 1995era bitarteko Mallabiko alkatea (EAJ), kartzelara sartu dabe, hiru urte eta erdiko zigorra betetzeko. Horrezaz gainera, Espainiako Auzitegi Gorenak zortzi urteko inhabilitazinora eta ostutako 391.303,12 euroak (interesak eta epaiketako kostuak gehituta) bueltatzera zigortu dau alkate ohia. Udaleko behargin Maria Gloria Suberbiola Rubiok zigor bera jaso dau.

Espainiako Auzitegi Gorena egiaztatu ahal izan dauenez, Pagaldai 391.303,12 euro ostu zituen alkate izan zen bitartean. Horreetatik, 3.154.504 pezeta justifikatu barik gastatu zituen, 685.884 pezeta Udaletxean erabili ez zen material informatikoa erosteko erabili zituen, 9.937.447 pezeta errealtateagaz bat ez zetozen parte-hartze gastuetan emon zituen, eta, azkenik, 30.904.060 pezetaren faktura faltsuak aurkeztu zituen.

HBk, oposizionetik, Pagaldairi kontuak argitzeko eskatu eutsan, "Madrilgo ikastaro baten fakturak eta Bilboko afari bate-nak egun bera zeukielako". Oraingo epaia, horren ondorio da. Mallabiko Udalak 1995ean Pagaldai EAeko Kontu Auzitegian salatu eban, Jose Ramon Olalde (EAJ) alkatetzara heldu zenean.

Hamalau urte geroago

EAEko Kontu Auzitegiak 1996an Pagaldairi Mallabian zituen ondusun higiezin batzuk (pisuak eta lonjak) enbargatu eutsazen. Ustelkeria kasua jakitera emon zenean, Pagaldai EAJn baja eskatu eban. Ondoren, aldi batez Eusko Jaurlaritzan lanean egon da. ■ Maria Gonzalez

Udaleko behargin Maria Gloria Suberbiola Rubiok zigor bera jaso dau

OTXANDIO

Plazatik Kultur Etxerako zatia atondu egingo dabe

Espainiako Gobernuak batutako diru-laguntzen baitan 209.000 euro jagokoz Otxandiori

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsinoen Estatu Fondoetarako errege dekretuan batutako diru-laguntza jasotzeko egitasmoa landu eta onartu dau Udalak. Denera, Otxandiori 209.000 euro jagokoz, eta hori aintzathartuta, Kultur Etxearen eta Enparantza Nagusiaren artean dagoen ingurua konpondu gura dabe. Egitasmoa aho batez onartu dabe azken udalbatzarrean.

Aritz Otxandiano alkateak zehaztu dauenez, Bolatokiaren, Pasealekuaren, Kultur Etxearen eta Vulcano iturriaren artean dagoen zatia urbanizatu gura

dabe; orain hartxintxarra dago bertan. Espainiako Gobernutik eratorritako laguntzak urte honen barruan garatzeko herri-lanak aurrera ataratzeko dira; %100eko laguntza izango dabe inbertsionok onartzen badira. Besteak beste, lanpostuak sortuko dituen herri-lanak izan behar dira, eta urteko aurrekontuan jasota ez dagozenak. ■ A.B.

Orain hartxintxarra dagoen zati hori guztia urbanizatu gura dabe udal arduradunek

www.Iurreta.net

IURRETAKO UDALA



ATXONDO

Udaleko lanpostuen zerrenda onartuta dago

Aholkularitzaren gomendioari jarraituz, 4 lanpostu gitxiago jaso ditue zerrendan

Prozesu "oso luze eta gatxaren ondoren" hartutako erabakia dela eta udalbatzaren koadro batean islatuta azal dutako lanpostu eta zenbakien atzean pertsonak dagozela kontuan izanda hartutako erabakia da udal lanpostuen berrantolaketarako dauena, Cobos alkateak nabarmendu eban. Udaleko lau lanpostu desagertu eta beste bost lehiaketa publikoan jarriko ditue la aurreratu eban.

Ikuspuntu laboraletik, Udaleko langileen orain arteko egoera onartezina zela nabarmendu eban alkateak

Udaleko aholkularitza zerbitzuak egindako azterketatik ondorioztatzen denez, azkenengo urteetan Udalean jardun dabena baino lanpostu gitxiago dira beharrezko. Holan jaso dabe Gobernu Taldearen botoekin onartu eben Udaleko lanpostuen baldintzak jasotzen dituen zerrendan. Orain arte, Udaleko kontratazioak adimnistrazio publikoak behar dauen moduan ez direla egin nabarmendu eban ezker abertzaleko alkateak, "orain arte Atxondoko Udalean oposaketarik sekula egon denik ez dot gogoratzen", azpimarratu eban; zehaztu eban, orain arte 14 langile izan dira Atxondoko Udalak kontratatutak eta oposizio bidezko hautaketa lau kasutan bakarrik egin da. Alka-



Udaleko bost lanposturako oposaketak egingo ditue. J.Fernandez

tetzan dagozenetik langileen zortzi errekamazino izan ei ditu Udalak, eta 12.000 euro baino gehiagoko isunak ordaindu behar izan ei ditu Udalak. Ikuspuntu laboraletik, Udalaren egoera onartezina

zela dino Gobernu Taldeak. Jeltzaleek "langileak zigortzea" leporatu eutsan Gobernu Taldeari, eta udalbatzarrean proposatutako udal langileen zerrendaren kontra bozkatu eban. ■ I.E.

BERRIZ

Garapenaren inguruan jardungo dabe Hiltegixen

AHTak, Durango-Beasain autobideak eta harrobiek eragindako inpaktua aztertuko dabe

Hiltegixe gaztetxeak hamarkada beteko dau otsailaren 13an, eta hori ospatzeko ekitaldi sorta antolatuko dabe, asteetan luzatuko dena. Gaur, 19:00etan, *Desarrollismoaren eraginak Durangaldean* izenburupean, AHTa, Durango-Beasain autobidea zein kanterak lako proiektuen egokitasunari eta eragiten daberen inpaktuari buruz dossiera aurkeztuko dabe. Ondoren, txokolatada eta AHTaren gaineko bideo emanaldia izango

Bihar hitzaldi bat eta antzezlan bi izango dira, arratsaldean hasita

dira. Azkenik, 22:30ean, hasita kantautoreen kontzertua dago.

Bihar, 11:30ean, erresistentzia tailerra dago. 14:30ean bazkariaren bueltan batuko dira. Jarraian, 17:30ean hasita, *Borroka antidesarrollisten eskarmen-tuak eta aurreikuspegiak* izeneko hitzaldia emongo dabe Mikel Alvarezek eta Julio Villanuevak. Azkenik, 22:00etan hasita antzezlan bi dagoz: *El Trinomio Kaotiko* (Teatro Terror) eta *Klonstrofobiak mendian* (Zurumuru antzerki taldea).

Ekitaldiak otsail osoan zehar egingo ditue. Esaterako, hilaren 6an Zea Mays eta Xarma taldeek zuzeneko eskainiko dabe. ■ J.D.

Jente asko batu zen azoketan, dantza erakustaldian eta herri kiroletan



San Anton jaiei errematea emon eutseen joan zen asteburuan. Barazki eta Fruitu Azokara zein Artisanautza Azokara erruz hurreratu zen jentea. Iremiñe dantzataldeak frontoian eskaini eban erakustaldia eguraldi txarragaitik, eta arrakastatsua izan zen: jesarlekuak beteta eta zutik be asko. Herri kiroletan ikuskizun dotorea eskaini eben harri-jasotzaileek zein trontzalariek.

·Haur hezkuntza ·Lehen hezkuntza
LEARRETA-MARKINA eskola

Tel. / Faxes: 94 682 43 44
e-maila: 014097aa@hezkuntza.net
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ

·Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
IES BERRIZ BHI

Tel.: 94 682 49 62 Faxes: 94 682 77 26
e-maila: 015073aa@hezkuntza.net
Elizondo plaza 7.A 48240 BERRIZ

Erdu Gurekin!!

- 2 urtetik 16 urtera
- Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz
- Jantokia eta garraioa

Aurrematrikula:
Otsailaren 2tik 13ra

Berrizko euskal eskola publikoa



Inoiz ikusi gabeko deskontuak

Berriztatu zure sukaldea eta **3 fokoko indukzio plaka bat** oparituko dizugu

%17ko deskontua



%10eko deskontua • 20 hilabetetan ordainduta

larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe

*Martxoak 31 arte, sukalde osoa erostean



Viedsa cocinas  

FABRIKA - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - info@viedsa.com www.viedsa.com

GARAI

Herrigune osora zabalduko dabe espaloia

Espaloia herrigune osoan zehar zabaldu gura dau Udalak, eta horri aurre egiteko egitasmoa aurkeztu dabe Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondotik diru-laguntza jasotzeko. Garairi 54.689 euro jagokoz onartuz gero, eta lanak aurten garatuko litzatekez. Aurrera darraien herriko plazagaz lotutako 2. faseko lanen barruan, begiratokia ez eze metro batzuetan espaloia egitea be badago aurreikusita. Espainiako Gobernutik eratorritako laguntzekin espaloia hori 100 metro luzatzea gura dabe herrigunea amaitzen den guneraino, Abadiño-rako noranzkoan. Horrek errepide apur bat mogitzea ekarriko dau; "zuzentzea", Gontzal Sarriurgarte alkatearen berbatan.

Errepidearen beste alboan dagoen aparkatzeko gunea asfaltatzeko be erabili gura dabe dirua. "Ilan aparkatzeko lekua ordenatu eta margotuko dogu; 13-14 leku geratuko dira. Halan be, atzekaldean be aparkaleku handia dago", dino alkateak. ■ A.B.

Espainiako Tokiko Estatu Fondotik 54.689 euro jagokoz Garairi, onartuz gero

ABADIÑO

Astolako igerilekua itxita kalteak erreparatu arte

Igerilekuaren estalkia eta alboetako beiratea apurtu zituen haizeteak



Igerilekuaren estalkiaren zati bat eroan egin eban urtarrilaren 23ko haizeteak. I.E.

Joan zen asteburuan izan zen haizeteak eragindako kalteak konpontzen ditueen bitartean, itxita egongo da Astolako igerilekua.

Udaleko teknikariak egin beharreko konponketen iraupena zehazteko lanean dabilzela eta itxiera zenbat denporakoa izan leiteken ezin dabela jakin azaldu dau alkateak, "aste edo hilabeteetako kontua" izango dela uste dabela be aitatu daben arren. Bando baten bitartez emon dau itxieraren barri, asteon, Udalak.

Igerilekua asteetan edo hilabeteetan egongo dela itxita azaldu dau alkateak, zehatz ezin esan arren

Asteburuan indartsuen Euskal Herriko kostaldea astindu dauen haizeteak eskualdean izan dituen ondorioetako bat da Astolako igerilekuko: azaldu deuskuenez, estalkiaren zati bat eta kristalezkoa den igerilekuko albo horma apurtu zituen haizeak.

Astolako kirolguneko gainerrako zerbitzuak martxan dagoz, eta Gobernu Taldeak nabarmendu dau al bait arinen izango dela igerilekua herritarrendako erabilgarri. Dena dela, igerilekua hartzen dauen eraikinaren egiturak -halako haizeteagaz batez be- arazoak izatea ahalbidetzen dauela nabarmendu gura izan dau Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.

MAÑARIA

Haurtzaindegian izena emoteko azkenengo egunak dira

Haurreskolan izena emon gura dabenei ahalik eta arinen egin daiela eskatu deutse Udalak

Orain dela aste batzuetatik eta hiru hilabeteko epe mugagaz, obretan dihardue Haurtzaindegia hartuko dauen eraikina atontzeko helburuz Mañarian. Haurtzaindegia martxan dagoenerako euren seme-alabak bertara eroan gura leukiezen guztiei gogorarazo deutse Udalak otsaileko lehenengo honeek direla azkenengo egunak Mañariko Haurreskolan izena emoteko. Udaltehea herritarren arretarako zabalik dagoen ordutegian (7:30-11:00a) edo Liburutegian (15:00-19:00) izango ditue interesdunek izena emoteko orriak eskura, jakitera emon dabenez; 94-6818998 telefono zenbakia be baliatu leikie.

Horregaz batera zabaldu dau Udalak lanak amaitzen ditueenean Haurtzaindegia izango dauen egituraketa eta antolaketa jasotzen dauen planoak: guztira, 100 metro karratu izango ditu.

Zerotik bi urtera bitarteko hamar ume hartzeko lekua izango dau Haurreskolak; erabilera anitzeko gela, bulegoa, aldagela, bainugela, logela, gela eta harrengela sortuko ditue 100 metro karratu horreen banaketatik. Esandako moduan, urtarril bukaera eta otsail hasieran izena emotera deitu dabe. ■ I.E.

Hamar ume hartzeko lekua izango dau 100 metro karratu inguruko Haurreskolak

IZURTZA

Apaingarriak egin eta memoria lantzeko saioak

Lehenengo hiruhilabetekoan izango dira 55 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaro biak

Durangaldeko Mankomunitateak antolatzen dituen tailer bi ditue herriko 55 urtetik gorako izurtzarre aukeran. Urteko lehenengo hiruhilabetean da zita. Astean birritan, herriko adinekoendako aproposak izan leitekezen tailerrek izango dira. Astean behin, martitzenetan, *Memoria lantzeko tailerra* izango dabe. Martitzenetan dabe 55 urtetik gorako guztiek, 17:00 eta 18:30ak arte, memoria lantzeko eta lantzen

ikasteko hitzordua. Bestetik, adin tarte bereko izurtzarrei zuzenduta, apaingarrien tailerra egingo dabe barikuetan, 17:00etan hasi eta 19:00ak bitartean.

Frontenis txapelketa
Otsailaren 6, 7 eta 8rako frontenis txapelketa antolatu dabe bigarren urtez herriko gazteek. Parte hartu gura duenak gazte lokalean emon leike izena datozen egunetan. ■ I.E.

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Fax: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infonegocio.com - www.infonegocio.com/industriastey

www.elaiia.es • e-mail: info@elaiia.es • Tel.: 94 640 98 98



DURANGO

EAJk gehiengoa "zapaldu" gura dauela dino PSE-EEK

Otsailean udal aurrekontu proposamena aurkeztea eskatu dabe sozialistek

Udal aurrekontua bigarren urtez jarraian luzatu dela eta, Gobernu Taldeagazko "etsipena" agertu dau PSE-EEK. Udal kontua urtarrilaren 1a orduko ez lotzera, automatikoki luzatu da aurrekontua. Horren aurrean, "gitxiengo jeltzaleak" udalbatzarren gehiengoa "zapaldu" gura dauela dinoe sozialistek: "Eskuduntzak saihestuz, atzeko atetik, jarduteko gaitasunik eza bistaratu ez dauen aurrekontuaren luzapena bilatuz".

Otsaileko bilkuran proposamena aurkeztea eskatu dabe,

PSE-EE: "EAJk eginbeharrak ez ditu betetzen eta interes elektoralak jartzen ditu herritarren interesen aurretik"

EAJk: "Obsesionatuta dirudie nahaste-borraste, kaos eta aurreikuspen faltaz jarduten"

mozino bitartez, sozialistek. "Elektoralismo hutsari" egotzi deusie EAJk aurrekontua ez onartu izana: "Eginbeharrak ez ditue betetzen eta interes elektoralak jartzen ditue herritargoaren interesen aurretik, denporaz eta bere eran zirriborroa aurkezteko kapaz izan barik".

Jeltzaleek, barriz, "nahaste-borraste, kaos eta aurreikuspen faltaz" jarduten sozialistek "disfrutatu" egiten dabela emoten dauela dinoe: "Gehiago oraindino, obsesionatuta dagoz. Eta dinoezen guztiak 'opozisino konprometitu, parte-hartzaile eta posi-

tibo' batetik esaten ei ditue". Ildo berean, Ermua lako udal sozialistek "legaltasuna ez betetzeagaitik" halako salaketarik egiten deusien galdetu deutso EAJk PSE-EEri.

"Ikasle alferra lez"

Sozialistek dinoe "kudeatzaile eraginkorragoa" balitz EAJk ez leukezela Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoko laguntzak "atxaki" lez jarriko: "ezta eurek sortutako baliabide falta edo kualifikatutako pertsonal eskasia be". Udala "ikasle alferra lez" azterketa prestatu barik harrapatu ei dabe, PSE-EEren ustez, "guk lanerako aurretiko jarrera agertu arren, oraingo egoera gatzean aurrekontua edukitzeko".

EAJk gogoratu dau PSE-EEren emendakin gehienak onartu eta gero Arau Fiskalen kontra egin ebela: "Zelan leiteke orain lanerako asmoa agertzea? Diru barik aurrekontua izan leiteke?". "Interes elektoralak" itzita, Durangoren "mesederako" lanean hasteko eskatu deusie PSE-EEri. ■ A.B.

Hamarkada ospatuko dau Gara-k gaur

Sortu zenetik hamarkada bete dela ospatzeko jaialdia antolatu dau Gara egunkariak Durangon. Gaur da hitzordua, Landako erakustazokan. Irakurle, akzinodun, hornitzaile, langile, laguntzaile eta lagunei luzatu deutsee gonbita urteurrena ospatzeko jaialdian parte hartzeko, eta sarrera doanekoa izango da. 1999tik gaur arte egindako ibilbidea ospatzeko 'Libre' leloa aukeratu dau Garak.

Landako erakustazokarako atek 19:30ean zabalduko ditue, eta 19:45ean hasiko dabe jaialdia; Igor Elortza eta Jon Maia bertsolariak gonbidatu ditue horretarako. Horren ondotik, hainbat izango dira prestatutako ekitaldiak. Zenbait bideo emonaldi eskainiko deutsez Garak bertaratu direnei.

Berbaldia eta luntxa

Horrezaz gainera, egunkariaren Donostiako erredakzinoagaz zuzeneko konexinoak egingo ditue, azaldu dabenez, eta berbaldia eskainiko dabe bai Meritxe Aizpuruak Garako zuzendari-ohiak bai gaur egun zuzendari den Josu Juaristik. Halan jakin eragin dabe arduradunek. Ondoren, bertaratutako ei luntxa eskainiko jake, 20:15 inguruan izango da, arduradunek adierazo dabenez. ■ A. B.

Landako erakustazokan izango da urteurren jaialdia, eta hainbat ekitaldi batuko ditue bertaratuko direnentzat

Irakurle, akzinodun, langile, hornitzaile, laguntzaile eta lagunei luzatu deutsee parte hartzeko gonbita

Atxiloketak salatzen manifestazioa

Errepresioa ez da bidea. Euskal Herria aurrera begira zionon pankartari eutsiz manifestazioa egin eben, joan zen barikuan, Durangon, Amparo Lasheras, Agurtzane Solaberrieta, Hodei Egaña, Eli Zubiaga, Iker Rodrigo, Imanol Nieto, Iñaki Olalde eta Arantza Urkaregiren atxiloketak salatzen. D3M plataforma bultzatzeagaitik atxilotu zitueen, eta asteon espetxera bidali ditue Baltasar Garzon epaileak; D3Men bitartez hauteskundeetara aurkezten saiatzea egotzi deutse, hori "ETAren estrategia-barruan" kokatu eta erakunde armatuko kide izatea leporatuz.

Durangaldean be Demokrazia 3.000.000 plataforma sortzeko hainbat sinadura batu ditue. Askatasuna eta D3Men zerrendak galarazteko dena egingo dauela iragarri izan dau Fiskaltzak. ■ A.B.



Manifestazioa egin eban hainbat herritarrek, Durangon, atxiloketak salatzen. K. Aginako

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12



12-18



17-19-21

Matrikula Epea:
Otsailaren 2tik 13ra

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan

MAIZTEGI
HH eta LH

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa

GLBH INSTITUTUA
Heziketa Zikloak



94 681 09 37 MAIZTEGI
94 681 04 61 OROBIOGOITIA
94 681 57 08 GLBH Institutua

ELORRIO

Kirol azpiegitura zerbitzua hobetzeko modua aztergai

Eskaria asko hazi denez, kiroldegia "txiki" geratu dela dioe; ondorioz, kirol arloko zerbitzua zelan hobetu jasoko dauen azterketa agindu dabe



Udal kiroldegia erabili gura dabenen kopurua asko hazi ei da azken aldian. J.Fernandez

Elorrioko kirol azpiegiturak "txiki" geratu direla dioe udal ordezkariak. Elorriok gaur egun herritarren zerbitzura daukazen azpiegiturak kiroldegia, frontoia eta eskoletako kantxak dira; aspaldian, eskaria hazi egin denez, guztiak asetzeko ez ei dira nahikoa. Ondorioz, zerbitzu hori hobetzeko asmoz enpresa bat kontratatu dabe gabeziak identifikatzeko eta horreek zelan hobetu leitekezen aztertzeko.

Niko Moreno alkateak azaltzen dauenez, "aspaldian ohartu

gara kiroldegia txiki geratu dela beharrianei erantzuteko. Horri irtenbidea emateko beharrezko ikusi dogu arlo horretako hutsuneak azaleratuko dituen azterketa bat egitea".

LKS izeneko enpresak kirol azpiegiturei buruzko kirol proiektua garatuko dau. Alde batetik, lehenengo fase batean, egungo egoera zein den eta zer premina dagozen jasoko dau. Gabeziak identifikatu ondoren, zerbitzua hobetzeko euren ustez jarraitu beharreko ildoak zehaztuko ditu.

Lan hori burutzeko, 25.400 euroko atala esleitu deutso Udalak eta proiektua hiru hilabetez prest izatea itxaroten dabe.

Behin LKSk egindako lana esku artean daukienean hasiko da Udala asmoa gauzatzeko proiektua osatzen. ■ J.D.

LSK izeneko enpresak hiru hilabetez bere diagnostia jakitera emongo dau; gero, proiektua osatzen hasiko dira

deutsie. Azkenik, Musika Eskolarako sarrera be barriztatuko dabe.

Proiektua osatzeko 63.800 euro erabiliko ditue. Lanak laster hasi eta sei hilebeteko epean amaituko ditue.

Argiteria San Josetik gora Bestalde, San Jose kaletik gora doan bidean argiteria ipiniko dabe. Horrez gainera, bide batez, Buenos Aires izeneko etxebizitza blokerak doan bideko argiteria barriztu egingo dabe.

Lanak Artape enpresari esleitu deusiez, 144.669 euro bideratu ditue egitasmoa gauzatzeko. Lanak laster hasi eta bi hilabeteke epean amaituko ditue. ■ J.D.

Goieta eta Amileta arteko espaloiak egokituko ditue

Kale horreetako oinezkoendako tartea barriztatu eta irisgarritasun eskakizunetara ekarriko ditue

Goieta eta Amileta kaleen artean dagoen oinezkoendako tartean urbanizazio lanak egingo ditue. Kale horreek eskola publikora doazenak dira. Gune horretan hainbat kale batzen dira, eta lotura hori hobeto ordenatu gura dabe. Bestalde, irisgarritasun arazoak be badagoz -eskaillerak, esaterako- eta horri be irtenbidea emongo

Elorrioko Musika Eskolarako sarrera be barriztatu egingo dabe lan horreen barruan

San Jose kaletik gora argiteria ipiniko dabe eta Buenos Aires blokerakoa barriztatu

DURANGALDEA

Durangoko eta Elorrioko bi erakusleihu saritu ditue

Bizkaiko XXV. Erakusleihu Lehiaketak Durangaldean be banatu ditu sariak. Bizkaiko 38 herritako 650 komertzioz parte hartu dabe lehiaketan, eta, Elorrioko eta Durangon sari bana geratu dira. Tokiko erakusleihu onenaren saria lortu dau Elorrioko Ditare mertzeriak, eta Durangoko Atxilea arropa dendak, barriz, ehun eta jantzigintza sektorean emondakoa jaso dau. Bestalde, Zornotzan hiru sari banatu ditue: bertako erakusleihu onenaren saria lortu dau Zumiller Delicatessenak, liburu eta papergintza sektorean Udalostek, eta, Boroa jatetxeak Ostalaritzako Cafés Baqué saria jaso dau.

DURANGO

Korrika Batzordeak batzarra deitu dau eguaztenerako



Martxoaren 26an abiatuko da aurten, Tuteran (Nafarroa), hamaseigarrenez Korrika. Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira lelopean, apirilaren 4an zeharkatuko dau Durangaldea, eta datorren astean Korrika Batzordea osatzeko batzarra egingo dabe AEK-Abarrak euskaltegian. Otsailaren 4an, eguaztenean, 19:30ean izango da elkarte eta eskolei begira antolatatu daben batzarra. Parte hartzera deitu dabe.

ABADIÑO

San Anton errifako lehenengo saria 1.623 zenbakiarentzat

Usadioari eutsiz, San Anton errifa egin dabe aurten be Urkiolan eta lehenengo saria 1.623 zenbakiak jaso dau. Halan jakin eragin dabe Santutegiko arduradunek. Bigarren saria 1.889 zenbakiak lortu dau, eta hirugarrena, barriz, 2.482 zenbakiak. Horren ondotik, laugarren, bosgarren eta seigarren sariak honako zenbakientzat izan dira, hurrenez hurren: 2.461, 2.786 eta 1.280. Urtarrilaren 17an ospatu eben San Anton eguna Urkiolan; biharra-munean dantzarien saioa ez eze, San Anton errifa be egin eben.

ATXONDO

Despedida Gaztetxe zaharrari

Atxondoko Gaztetxean eraberritze lanak hasteko dira eta gaur *Despedida eguna* antolatuko dabe. 18:00etan Gaztetxearen 10 urteko ibilbidea erreparatutako dabe eta aurrera begirako asmoen barri emon.

19:30erako *Gaztetxeak nahi ditugulako* izeneko ekimena prestatu dabe. Ondoren, 20:30ean poteo herrikoian eta afarian batuko dira.



BERBAZ >

Anis Hawari •

- Biladi kultur elkarte palestinarreko kidea da.
- 58 urte ditu. Orain 30 urte etorri zen Durangaldera



“Israelek auzi politikoa gatazka humanitario bihurtu gura dau”

Biladi kultur elkarteko kideek Palestinan bizi daben egoera ezagutzera emotea dabe helburu.

Gazatik heldutako kronikak nazinoartea Palestinara begira jarri dabe aste batzuetan. ‘Berun Urtua’ operazioak egunkarietako azaletara ekarri dauen gatazka aspaldikoa da, halan be. Anis Hawari palestinarrek Durangaldean bitzta erdia daroan arren, ez ditu bere erroak ahaztu.

Jaiotzez libanoarra, baina bihotzez palestinarra.

Bai. Gure gurasoak 1948an Libanora erbesteratu zitueen. Gu Haifakoak gara, eta hara itzultzea gura dogu. Horrexegaitik, bizi garen lekuan bizi garela, ez doguz sekula sus-traiak errotuko.

Zelan bizi izan dozue Gazan gertatutakoa?

Tristura eta inpotentzia sentimenduarekin. Halan be, palestinar herriarengan fede handia daukagu. Garbiketa etniko bat izan da: genozidioa.

Gazan oraindino be egoera larrian bizi dira.

Setioa ez da amaitu. Ez dabe ingurua berreraikitzerik gura. Egoera hori mantenduz, herriak amore emoteko ahaleginean dihardue. Xantaia horregaz jarraitu gura dabe.

Laguntza humanitariao heltzeko arazoak dagoz.

Gatazka humanitariao bihurtu gura dabena auzi politikoa da. Laguntza humanitariao kontrolatuz, palestinarren askatasun goseagaz amaitzen saiatzen dabilz.

Obamagaz konponbidea gertuago egon leiteke?

AEBen presidentearen kolore aldaketak, oraingoz, ez dau palestinarrengan aldaketa nabarmenik eragin. Hasieran keinu onargarriren bat egin eban, baina ez palestinarren alde. Kalkulu elektoragaz Israelek bere interesak defendatzeko botere aldaketa aprobetxatu dau.

Nazinoartek izan dauen jarrearri zer deritzozu?

Munduko potentzia handiek, Ekialde Ertainean interes handiak ditue eta honen ondorioz, Israel babesten dabe; horixe da AEBren kasua, esate baterako.

Komunikabideek gai hau lantzeko daukien moduari zer deritzozu?

Jakin badakigu informazio iturri garrantzitsuenak lobby judutarren eskuetan dagozela. Israelek biktima errudun bilakatu gura dau: horixe da bere estrategia, Israel bakezaletzat emon, palestinarrek errudun bihurtuz. Egoera guztiz kontrakoa da, baina. Osloko akordioetatik Israelek asentamendu gehiago sortu ditu. Gainera, Zisjordania isolatzen behin eta berriro ahalegindu da, eta akuiferoak bereganatzen be bai. Palestinar herriak, bien bitartean, negoziazioekin bakea lortuko ebela pentsatzen eban.

Batzuek Gazan gertatutakoa Holokaustoagaz alderatu dabe.

Ez neban sasoi ha ezagutu, baina gatxa izango da gertaera hareek Israelek egindakoa gainditzea. Sasoi barriak bizi doguz, eta orain teknika modernoagoak erabiltzen ditue sarraskiak eta torturak aurrera eroateko.

Zirrikituren batetik bakea ikusten da?

Ez dirudi erraza denik. Konponbiderako Israelek zabal-kundeari uko egin beharko leuskio, 500 kontrol inguru kendu, 10.000 preso askatu eta legez kanpokoa den harrisia be bota egin beharko leuke.

Eta bakerako bidea zelan eraiki?

Justuena estatu multietnikoa sortzea litzateke. Bi estatu sortzeak gaur egun Israelgo nazio-tasuna daukien palestinarrentzat beste estatua kanporatuak izatea suposatuko leuke; hau da, garbiketa etnikoa.

■ Jone Guenetxea

“Gazan azken asteotan gertatu dena garbiketa etnikoa izan da: genozidioa”

“Israelek erabiltzen dauen estrategia biktima errudun bilakatzea da”

EKONOMIA[>]

>ZORNOTZA

MZn 44 behargin kaleratzearen aurkako hainbat mobilizazio

Mendiguren Zarraoa (MZ) enpresak Abadiñon eta Berrizen daukaten lantegietako beharginek mobilizazioarako deia egin dabe. Zuzendaritzak eta akzinodunek martxan jarri gura daben erregulazio espedientearen kontra agertu dira eskualdeko lantokietako 330 beharginak. Izan be, enpresak hartu gura dituen neurrien artean, 44 langile kaleratzea aurreikusitako dabe, eta baita soldatak %15 jaistea be. Gainera, 2010-2011 urteetan soldatak ez igotzeko eskatu dabe.

Otsailaren 7an MZko beharginek Eibarren manifestazioa egingo dabela azaldu dau LABek.

Enpresak proposatutako planak 50 eguneko erregulazio espediente eskatzen dau, onartuko leukienetik uztailearen 30a bitartean.

Sindikatuetak ordezkariek erregulazio espedienteari onartezina deritzoe. Irtenbide legez, lanpostuak mantentzea eta bazkideek kapitala jartzea eskatu dabe. Bazkideek, baina, konponbide horri ezezkoa emon deusie. Sindikatuak jakin eragin dabenez, "langileei enpresa aurrera ateratzeko ahalegina eskatzen deuse, baina bazkideak ez dagoz ezer emoteko prest. Gainera, enpresaren gestinoa ez da ona izan".

■ Jone Guenetxea

Enplegu-erregulazioa onartezintzat jo eta neurri denak langileek ordaintzen ditueela dinoe

>ZORNOTZA



Joan zen barikuko inaugurazioan berbaldea emon eban lehendakariak. Iban Gorriti

Automotive Intelligence Center inauguratu dabe

Nazinoarteko 18 erakundek ekimen honeguz bat egin dabe. Eraikin honetan trebakuntza, ikerketa eta industria garapenerako unitateak ezarriko ditue.

Automotive Intelligence Centerren (AIC) lehenengo fasea inauguratu barri dabe Zornotzan. Egoitza nagusiaz gainera, bi garapen unitate ditu. Aldundiak bere gain hartu dau fase horretarako egindako 42 milioi euroko inbertsinoa. Zornotzako Udalak 50.000 metro koadroko lurra itzi dau. Fase horretan, Ermuan bost garapen unitate eraikitzen dihardue.

Jakin eragin dabenez, automozino zentro honen eredu bakarra da munduan. Balio erantsiko jarduerak espazio berean biltzea da zentroaren ezaugarri

nagusia. AICen helburua bertan kokatutako sektoreko enpresen arteko lankidetzaren sustatzea da, lehiakortasun handiagoa izan daiten. Instalazio horretan trebakuntza, ikerketa eta industria garapenerako unitateak ezarriko ditue. Hurrengo fasean egoitza nagusia handituko dabe.

Automozino sektoreko hainbat profesional batu ziren joan zen barikuan Zornotzan AIC zentroaren inaugurazioan; Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Jose Luis Bilbao ahaldu nagusiak be ekitaldian parte hartu eben.

■ Jone Guenetxea

Bigarren faseko lanei laster ekingo deuse. Aldundiak beste 20 milioi euro inbertituko ditu

Automozino sektoreko enpresak espazio berean batzea da AIC zentroaren helburu nagusia

kolaborazioa



Aitor Iturriaga
LAB sindikatua

Elkartasun amarauna

Aspaldi honetan, ekonomiaren haize gaiztoak bortizki ari dira astintzen langileria. Bizi dugun zurrumbilaren ondorioz, teoria ekonomiko guztiak "missing" daude, neoliberalak interbentzionista bilakatu ditue, ezkertiarrek kontsumoaren sustatzaile... akabo ideologiak.

Agintariak egun argiz eta katamalik gabe mezu pozoituak jaurtitzen ari dira etengabe. PNVren "Think gaur Euskadi 2020" famatua, Ibarretxeren erreguetan laburbildua: langile jaun-andereak, izan zaitezte otzanak eta joan txintxo enpresarien eskutik... amildegira bada ere. Bitartean, Jaurkitzaren eskumena den lan delegaritzak (bere esku dago enplegu-erregulazio espedienteak baimentzea) enpresek eskatutako opari guztiei amen. Bost axola enpresak aurreko urteetan eskandaluzko etekinak pilatu dituen edo ez. Ez dago gure lanpostuak defendatuko dituen agintaririk, merkatuko legea fede, langileak ezabagarri diren kostu soilak gara.

Beste behin ere, ordain dezala langileak. Enpresa-langile binomioa, atzo familia handi zena, loturarik gabeko erlazio da gaur. Langileak beraien kaltetan diseinaturiko legediaren hankapean abandonatuak. Kalteordain miserableak musuzapi.

Egunotan haizeteak gure herrietan barrena egin duen txikioz bera antzeman liteke eskualdean, egoerari aurre egiten ez badiogu. Borroka ideologikoaren beharra dugu.

Dena ez du halabeharrak gidatu. Estatuaren eta agintarien arduragabekeria eta kontrol eza, ezin da isilean lurperatu. Subentzio publikotatik milioiak patrikaratu dituzten enpresari "jendartearekiko ardura" neurtzeko ordua da. Enpresari edo epe laburreko espekulazioa, irauteko bokazioa edo irabaziak pilatzeko soilik: hautatu dezala bakoitzak bere lekua.

Gaur inoiz baino gehiago langileon amarauna elkartasun-hari trinkoekin osatu behar dugu. Gure lanpostuak defendatu eta desideologizazio uhilde horri atak itxiz. Gure lanpostuak defendatu dugu! Etorbizuna dago jokoan.

Podología

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGA 100. Eragotzidea

Herriko gudarrien kalea, 10 - beheak
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTIETAKO INDUSTRIAL
HONDAKINEN BERRIKETA

Jon Garitagoitia Gallastegi

PROJEKTUAK, BILAKETA, GERTAKIA - 48800 MALLAIA
Tel. 943 17 26 04 • FAX 943 17 26 04

KULTURA>



Kepa Aginako

ANTZERKIA>

Teatre Nu, Joanen Ilargia Elorrion islatzen

Euren ametsezko mundu eta fantasiak sortzen abilak izaten diren umeengan pentsatuz sortutako testu bat oinarri hartuta egindako antzezlanak da *Joanen ilargia*; katalanezko *La Lluna d'en Joan* bertzioaren euskararako itzulpena. Carme Solé Vendrell autoreak 1982an idatzi eta ilustratutako ipuina da domekan Elorrioko Arriolan taularatu zutena.

Txotxongiloekin umei zuzenduriko antzezlanak egiten dituen Teatro Nu taldeko gazteek azaltzen dutenez, eurak umeak zirenean irakurri eta imajinatu zuten ipuina da gaur egun ume direnentzako eskaintzen dutena.

Ipuinean agertzen diren ilustrazioen eta bertako berben ohol-tzaratzea Arriola antzokian egin zuten joan zen domeka arratsaldean. Aita arrantzalea gaixotzen zaion ume baten istorioa da *Joanen ilargia* kontatu zutena.

Joanen emozio eta sentipenak, bere aita, eta, bizi den lekuko itsasoa, ilargia eta zerua bera ere badira ikuskizun honetan protagonista; horien arabera uztartzen dituzte ikuskizuneko gainerrako balibideak egileek. Txotxongiloak eta ipuinean jasotako objektuak dira *Joanen ilargia* antzezlanean erabiltzen dituztenak, eta, naturatik hartutako irudiak eta ikustera doazen ume guztien imajinazioa ere bai. ■ I.E.

12 > Korrika Kulturalaren aurkezpena

Martxoan Korrika abiatu aurreko hilabete bietarako askotariko kultur ekitaldiak antolatu ditu AEK-k Korrika Kulturala ekimenarekin.



13 > Aldapako maketaren irabazlea

Joshua Froufek maketa lehiaketa irabazi zuen ohol-tza berean emango ditu kontzertuak asteburu bitan: Berrizko Hiltegitxe gatzetxean.

KORRIKA > EGITARAUA

Urtarrilaren azkeneko egunerako programatu du AEK-k urte birik behingo Korrikaren osagarri den Korrika Kulturalaren abiapuntua. Benito Lertxundi izango da bihar Gasteizko Mendizorrotzan.

Korrikaren 16. emanaldi honetan ere, martxoaren 26an Korrika Tuteratik abiatu aurreko bihilabetetan egingo da, eukarazko arte eszenikoak bultzatzeko eta sortzaile berriei euren lanak erakusteko baliabideak eskaintzeko helburuz, AEK-k martxan ipinitako Korrika Kulturala.

Arte eszenikoak bultzatzea du Korrika Kulturalak helburu

'Anitzak' Durangon

Aurtengo Korrika Kulturalaren programazioko eskaintza berezietako bat Durangoko Plateruena izango da martxoaren 28an: gurera etorritako inmigranteek sortutako Anitzak elkarteak bultzatutako ikuskizuna da Durangon estreinatuko dutena: musika, bertolaritza eta hip-hop auzartzen dituena. Xabier Silveira bertolaria eta MC Invert eta MC Barakaldo hip-hop abeslariak sortutako ikuskizuna da *Anitzak Hitzak*.

Duragon ez ezik, Euskal Herriko beste txoko askotan ere estreinatuko dituzte Korrika Kulturalaren programazioaren barnean hartutako antzezlan, kontzertu, dantza emanaldi eta askotariko kultur ekimenak. Tartean, umeendako bereziki sortutako hainbat ikuskizun ere bai.

Bertsolaritza eta hip-hop batzen dituen 'Anitzak Hitzak' izango da Durangon

Durangoko Landako erakustazokan bildu ditu AEK-k, astelehen honetan, Korrika Kulturalaren euren lanak erakutsiko dituzten alor anitzetako artistak. Euren lanen aurrerapen txikia egin dute artistek, Edurne Brouard-ek Mikel Laboa sarrera hitzaldian gogoan hartu eta gero. Politikoki ez zuzena, ausarta eta lotsagabea den *Mirande Kabareta* ikuskizuna aurkeztu du Edorta Jimenez idazleak;

Korrika Kulturalari ongi etorria emateko batu dira Landakon

Benito Lertxundiren kontzertuak abiatuko du aurtengo Korrika Kulturala



Jon Mirande idazlearen bizitzako pasarte bat abiapuntu hartuz, Txuma Murugarren musikariarekin sortutako ikuskizuna da hori.

Hegoaldean lehenengoz

Gatazka politikoari buruzko gogoetarako gaia ematen duen Piarres Larzabal idazle lapurtarraren *Ibañeta* antzeztanaren Ander Lipusen bertsioa ere izango da Korrika Kulturalaren parte; urrian Iparraldean estreinatu zuten 18 antzezleren lana Hegoaldean lehenengoz ikusgai izango dena. Ander Lipus bera antzezle eta bertolaria bat eta gai jartzailea protagonista dituen *Erregea eta bufoia* bapateko saioa ere badago AEKren egitarauaren barruan: bertolariaren eta antzeztzailearen arteko erroka eta Lipus antzeztzaile pertsonaiak inprobisatzen ikusteko aukera izango da ikuskizuna.

Euskararen herrian sortzen den kulturaren oholta izango da Korrika Kulturala, eta bi hilabete geroago etorriko da martxoaren 26tik apirilaren 5a arte herririk herri ibiliko den 16. Korrika. ■ I.E.

Euren lanak eskainiko dituzten artistak batu dituzte Landakon

Mikel Laboa gogoan izan dute aurkezpenean

Kanta eta bideoa

Euskal Herrira, euskararen herrira etorri, eta gure hizkuntzara gerturatzea datozenei zein etorriko direnei ongi etorria ematearen garrantzia ardatz lez duen 16. Korrikaren kantaren berbak egitea Jon Maia bertolaria eta idazleari eskatu diote aurtun. Inmigratioaren gaiaren inguruan *Riomundo* izeneko liburua idatzi zuenari. Maiaren berbak musikatzea, berriz, Gasteizen sortutako Betagarri taldeari eskatu dio aurtun AEK-k, Korrika Gasteizen bukatuko delako aurtun eta euren musika oso apropos ikusi dutelako. Emaizta, erritmo bizia eta alai duen abestia da.

Kanta "dantzagarría eta kantagarria" sortu gura izan dutela azpimarratu dute abestiaren sortzaileek, eta "kanta jostagarria" izango dutela bide-lagun Euskal Herrian Korrika arituko diren euskaltzaleek.

Korrika iragarriko duen bideoak, bestalde, abenduan Plateruena antzokian eta Landako inguruan hartutako irudi batzuen gainean sortu dute. Euskara ikasiz gure kultura eza-gutu eta egunero-egunero bizitzeko esfortzua egiten duten guztiei euskaldunon esker ona adierazteko, "hemengo eta hango" inmigranteak dira bideoak protagonista nagusi.

GEURE DURANGALDEA



Ziortza Onaindia Bibliotekaria

Irakurleen klubak

Klub hauen helburua irakurleari literaturan nolabaiteko eragina izan duten lanak ezagutzeko aukera ematea da. Irakurlea liburura joan beharrean, liburua dator irakurlearengana, aukeraketa guztiz kontzientea bilakatzen delarik. Irakurketak proposamen zerrenda batetik aukeratzen dira.

Klub hauek, literaturan oro har, harrobi bihurtzen dira, hainbat eta hainbat harribitxi berreskuratzen direlarik apalategietatik. Agian nabarmenena euskal literaturaren kasua da: askotan negar asko entzuten da euskal literaturaren egoeraren inguruan, baina ezagutzen al dugu benetan eskaintza zer nolakoa den? Edo Durangoko Azokako nobedadekin funtzionatzen dakigu bakarrik? Taldetan argi gelditzen zaiguna, behintzat, zera da: nahiz eta gauza asko hobetu beharrean dagoen, euskal literaturan eta euskaraz badagoe-la zer irakurri, letra larriz idatzitako literaturaz ari gara.

Apalategietatik hainbat harribitxi berreskuratzen dira irakurle klubetan

Taldean norbere inpresioak elkarbanatzeko parada daukagu, idazlea hobeto ezagutzeko, irakurritakoa ulertzeko; irakurketaren plazerrari zukua atera, liburuaren ñabar-durak ikusi, irakurketa ezberdinak egin, norberaren eritzia beste ikuspuntu batzuekin abarastu... laburbilduz: gozatu.

Irakurtzen ikasteko aukera bat ere bada; beti ere, Daniel Pennac-ek aldarrikatzen dituen irakurlearen eskubideak errespetatu, noski.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 31 22:00etan
LOS CORONAS
Disko berriaren aurkezpena.
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

OTSAILAK 5 22:00etan
LAM RIM
KONTZERTUA. Sarrera doan.

OTSAILAK 6 22:00etan
RUBINOOS + SUZY & LOS QUATTRO
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ABRAHAM Y SAMUEL

Karmakros Antzerki Taldea (Gipuzkoa)

Otsailak 1 igandea 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

Tel.: 94 601 07 76

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Estudioan grabatzeko dodan aukera ondoen zelan aprobetxatu pentsatzen nabil”

Hasita zagoz Aldapa lehiaketan irabazitako maketaren grabazioa egiten?

Ez, oraindik ez. Lorentzo Recordsen lanpetuta dabilz, eta Aste Santua eta gero hasteko asmoa daukat, azaroa dago grabazioa egiteko muga moduan ipinita. Grabazioa zelan egin pentsatzen nabil orain: grabazio estudioan daukadaz orduak ondoen zelan aprobetxatu pentsatzen.

Saria jasotzerakoan, oso hunkituta ikusi zintugun. Saria aprobetxatuko dozula izan zen esan zenuen bakarra...

Ez neban saria itzaroten, eta Arrik nire izena esan ebanean asko emozionatu nintzen. Gainera, bederatzita taldek jo ondoren izan neban kontzertua: azkena izan nintzen kontzertua emoten... Aurretik bi bider parte hartu neban Aldapan, eta nire herriko gaztetxean irabazle izatea berezia izan zen, bai.

Eta badaukazu pentsatuta zer kanta batu diskoan?

Sei kanta grabatzeko asmoa daukat. Aldapan jo nituenetarikoz batzuk kanpoan itziko ditut, eta oraintxe egiten nabilen barri bi be sartzea gura neuke. Oraindik, letra batzuk egiteko daukadaz.

“Oraintxe sortzen nabilen kanta barri bi be sartu gura ditut maketan”

Bakarlari moduan ez eze, taldeetan be jarduten dozu...

Bai, Zain eta Xarma taldeekin jotzen dot. Gaur arratsaldean, esaterako, Xarma taldeagaz entsegua daukat Azpeitian, hurrengo kontzertua prestatzeko.

Sariak, baina, Abadiñoko Basoa tabernan eta Aldapan, bakarlari moduan jaso izan dozuz...

Bakarlari moduan bakarrik ez, taldeekin; Aldapa maketa lehiaketako bigarren saria Zainegaz eta NoiseX taldeagaz Euskadi Gazteako entzuleen saria jaso doguz.

Noiz hasitakoa zara musikaren munduan murgiltzen?

Musikagaz lehenengo hartu-emoia bateria jotzeari ekitea izan neban, 14 urte inguru nituenean. Gitarra jotzen, barriz, taldekide nagusiekin izan ditudan entseguetan, lagunek eurek erakutsita joan naz ikasten. Bi urte inguru daroadaz gitarra jotzen.

Eta gitarra joaz kantatzeko gogoaz noiz sortu jatzun?

Hasieran kantatzeko ideiarik ez neban, baina, gitarra joaz, apurka-apurka joan naz kantatzen ikasten. Kantuko, bateriako, saxoko eta

Urtarrilaren 30ean bakarlari lez eta otsailaren 6an Xarma taldean bateria jotzen arituko da 20 urteko Joshua Froufe berriztarra, bere herriko HiltegiXe gaztetxean. Bertan irabazi eban, abenduan, maketa bat grabatzea sari dauen Aldapa Maketa Lehiaketa.



pianoko klaseetara joan izan naz Durangora. Baina orain lan barik nago, eta itzi egin behar izan deusat joateari.

Klaseetara joan ez arren, baina, zure kontura jarraituko dozu instrumentuak jotzen, ezta?

Bai, bai... Eta diru nahikoa dodanean klaseetara joateari berriro ekiteko asmoa daukat. Dena delala, oraintxe bertan gustukoen dodana gitarra da: gitarra jo eta kantatzea. Taldeekin daukadaz entseguetan, barriz, bateria jotzen dot; nire kontura gitxiago jotzen dot bateria orain.

Eta zelako kantakera daukazu-la esango zeunke?

Lehenago, bateria jotzen nebanen makarradak bakarrik jotzen nituen, baina egia esan, gitarra-gaz kantatzeko, abesti melodikoagoak ditut gogokoago; lasaiagoak direnak, zelanbait.

Zer da musikaren alorrean gehien betetzen zaituena?

Gaur egun, gitarra jo eta kantatzea da gehien betetzen nauena. Halan be, bateria jotzen be asko disfrutatzen dot. Baina esandakoa, azkenengo aldi honetan gehien egiten dodana gitarra jotzea da: ez naz gitarra jotzeaz aspertzen.

“Nire lehenengo kanta Basoako lehiaketa irabazi baino gitxi lehenago sortu neban”

“Letrak ez dira autobiografikoak izaten, pertsonaia batzuk sortzen ditut”

“Zuzenekoak osotuago geratzen direlako gura dot beste musikari batzuekin taldea sortu”

Abesti bat zelan sortzen dozu?

Gehienetan musika ateratzen dot lehenengo, eta azkenengoa letra pentsatzea izaten da. Batzuetan, aldi berean be egin izan dot: gitarra-gaz melodia ateratzen dodan bitartean paperean idazten joatea. Kantatzerakoan, berba bako melodia bategaz sortzen ditut abestiak gehienetan.

Zeuk egindako abestiak konposatzeko gogoaz zelan sortu jatzun?

Gitarra jotzen eta kantatzen hasi nintzanean sartu jatan behar hori. Dena dela, lehenengo abestia Matienako Basoa tabernako lehiaketa irabazi baino gitxi lehenago sortu nebala aitortu behar dot: abesti bi kantatu behar ziren lehiaketan, eta arrebak “Apuntatu zaitetz!” esan eustanean, orduantxe amaitu barri neban bigarren kanta. Hortik aurrera, azken hilabeteetan joan naz kanta gehiago sortzen: Basoako bigarren emanaldirako abesti barri bat izatea zen baldintza, eta hortik abiatu nintzen. Zazpi bat kanta daukadaz orain neuk sortutakoak.

Eta zelakoak direla abesti horrek esango zeunke?

Letrei jagokenez, egiten dodana pertsonaia batzuk asmatu eta euren azalean ipintzea izaten da:

kontatzen ditudan ez dira izaten niri gertatutakoak. Amodioari buruzkoak dira hiru kanta, drogei buruzkoa beste bat... Bakotxaren interpretazinora zabalik dagozen letrak izaten dira.

Taldeagaz edo bakarka egoten zara lasaiago eszenatokian?

Bakarrik egoteak errespetu handiagoa emoten dau: ez da gauza bera bateriaren atzean egotea edo eszenatokiaren aurrealdean egotea. Baina, egia esanda, ez naz zuzenekoetan oso urduri ipintzen diren horreetarikoa, oholtzara igotzerakoan tripan halako zirrarra bat beti eduki arren.

Egunean zenbat denpora deditkatzen dozu musika egitera?

Asko... Gaur, esaterako, goizean jaiki eta Fitoren abesti bi ateratzea izan da egin dodan lehenengo gauza. Bertsinoak eta kanta barriak ateratzen ibiltzen naz.

Eta talde finkoa osatzeko asmorik badaukazu?

Gustatuko litxakit... Uste dot gitarra bategaz baino osotuagoa dela bandagaz. Lekuaren arabera –tabernen baten, esaterako–, espaziora moldatzeko nik bakarrik gitarra-gaz be jo neike, baina bestelakoetan taldeagaz. ■ I.E.

ERITZIA[>]

Gutunak @

Azokako kartelari buruz

Txarto ulertuak argitzeko asmoz, gutun hau idazten diegu Aitor Egiari eta irakurle guztiei. Beharbada, aurreko gutunean gauzak ez genituen ondo azaldu, eta bazterrak nahiko nahastuta daudenez, ondorengo hau argitu nahi dugu:

Durango Liburu eta Disko Azoka Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa izanik, Gerediaga Elkarteari eta editorialei, genero ikuspegia txertatzeko pausu berriak emateko proposamena egin genien: alde batetik, emakumeen parte hartzea aztertzea, eta, bestetik, kanpo jardueran genero ikuspegia kontutan izatea. Proposamen hauek urtero egin dizkiegu, orain dela lau urtekin hona.

Badakigu Gerediagak ez dituela argitalpenak aukatzen; guk ez diogu horrelakorik eskatu, lan hori editorialei dagokie. Baina genero ikuspegiaren zereginetan, funtsezko ekarpena egin dezakeela uste dugu, eta gu horretan laguntzeko prest egon gara.

Argi adierazi nahi dugu Gerediagak 40 urtetan arlo kultural eta sozialean egindako lan eredu garria ez dugula inoiz zalantzan jarri.

Azokako kartelaren inguruan sortutako ika-mikan, guk balorazio positiboa egin dugu. Izan ere, Gerediagak telebistan atera zuen iragarkia ez da kasualitatea izan. Honen haritik, Durango Udaleko Emakume eta Gizonen Berdintasun Planean parte hartu du, beraz, parekidetasunaren aldeko pauso bat gehiago eman duela esan genezake, eta hori zoriondu beharrekoa da.

Amaitzeko, berdintasunean bizi garela saltzen diguten munstro eta mamuz josita dago gure jendarrea, norberaren etxetik hasita kaleko esparru guztietan. Bilgune Feministak, berriz ere, parekidetasunean eta berdintasunean oinarritutako Durango nahi du, eta emakumeek ikusezintasunetik atera eta dagokigun lekua hartu behar dugu.

Gure eskubideak defendatzearen hedabideetan protagonismoaren bila gabiltzala aurpegiatu digute. Argi dago gure lana ez ezagutzeaz gain, guk dugun filosofia feministarekin ez duela bat egiten!

Durango Bilgune Feminista

Ikasketak

1992ko udazken aldera Policia Nacional Civil izenekoa sortu zen El Salvadorren. Bake akordioaren ondorengo urte haietan egin beharrekoak gogorrik izango zirenez, irakasleak behar zituzten, eta Espainiako Polizia Nazionala (uniforme urdin estreinatuta berriekin) eta Pinoxtet jubilatutako Txileko Karabineroak hautatu zituzten. Ezaguna da klaseetako batean ikasleetako bat zutitu eta irakaslearen aurrean oldartu zela, ez zirela hara torturatzen ikasteko joan esanez.

Ertzaintzak ez zuen haiengandik ikasi. Israel aldean aurkitu zituen garai hartan irakasle hobeak; bai Espainian eta bai Txilen irakasten ibilitakoak, eta Nigeria aldean, Amerikako Estatu Batuetan... curriculum ederrekoak.

Israeldarrak izan ziren aurrekoan, hilaren 17an, Urbinan ibili ziren biolentoen irakasleak. Lurrean eseritako jendea egurtu eta etxerantz zihozazenen kontra kargatzen dozenaka zauritu eragin zituztenak, autobuskada osoak hormara begira jarrita zigortu zituztenak, metrailetak eskuetan jendeari alde egiten utzi ez zietenak (minutuko 700 tiro botatzen dituen metraileta erabiltzeko asmoz izan ote ziren, edo jendea kikitzeke baino ez zeuzkatzen?)

Egun berean, baina arratsaldean, manifestazioa izan genuen berriz Durango kaleetan, herriko arabiar taldeek antolatuta. Palestinaren alde, Gazako genozidioaren aurka. Ertzaintzaren irakasleak dira Israelgo ejertzito eta poliziaren irakasle ere, egun hauetan hain eraginkor lanean ikusi ditugun berberak, haien Krav Maga, segurtasunarekin, fosforo zuri lehergailuarekin, harrotasunarekin, munduko gobernuen konplizitatearekin.

Bake eta demokraziaz ahoa beteta biolentzia eta zapalketa nola erabili. Eskola ofizialerako matrikulak irekita jarraitzen du, demokrata omen direnentzako, biolentzia guztia (beraienak ez du kontatzen) atoa kondentzen dutenentzako.

Aitor Sarrionandia (Durango)

Abadiño San Blasetan

Euskal Herriaren historia arrantzale, abeltzain eta nekazari idatzi dute. Euskal Herriak arrantza, abeltzaintza eta nekazaritza izan ditu oinarri gaur egun arte. Gure historia herritar xume horiek egin dute.

Hala ere, orain sektore garrantzitsu hau gainbeheran jarri digute gure herriko agintariek. Izan ere, sektore hau eta bertako langileak bultzatu beharrean, ito egiten dituzte.

Alde batetik, ekoizpen sistema molde jakin bat bultzatzen dute soilik; nekazaritza produkzio txikiak, nekazaritza ekologikoa, nekazari, abeltzain eta arrantzaleen aldeko enpresa politikak... lagundu beharrean, horiek oztopatu eta nekazari, abeltzain eta arrantzaleak babesten ez dituzten politika eta enpresa moldeak sortzen dituzte.

Honen guztiaren adierazle da EITBko *Sustraia* programa; Eusko Jaurlaritza eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundien babesturiko publikitate iraukorra. Programa horrek irauten duen denbora guztian, aipatutako instituzio horiek sortutako marken propaganda besterik ez digute egiten: horra hor Gure Okela, Bizkaiko Txakolina, Idiazabal Gazta, Kalitatea Fundazioa... *Sustraia* programa horren ikusentzuleek erraz pentsatu dezakete Euskal Herrian ez dagoela beste arrantzale, abeltzain eta nekazari; hau da, Gure Okela, Bizkaiko Txakolina, Idiazabal Gazta eta Kalitatea Fundazioa direla lehen sektoreko ekoizle bakarrak.

Nekazaritza eta abeltzaintza gure herriaren eta euskal kulturaren oinarria eta *sustraia* izan dira. Gaur egun, gero eta arazo gehiago ditugu merkaturako produktu naturalak erosteko. Arazo hori gure agintariek sortu dute: Euskal Herria ingurune berde eta natural bat izanik, porlanez beteriko ingurune bat egiten ari dira: auto-

pistak, errepideak, zubiak, zaborteak, harrobiak, trenbideak... Azpiegitura hauek guztiak hainbat nekazal-lur eta nekazaritza-ustiakuntza desagertarazi dituzte; arrantza gero eta zailagoa da itsasoaren egoera biziki larriagatik...

Urtero lez, *Sustraia* programan ziur aski otsailaren 3ko Abadiño San Blas Azoka erakutsiko dute; nekazal produktu eta abere ezin hobeak egongo diren azoka, zuhaitz eta landare ezin hobeak salduko dituzten azoka. Baina zer lurretan landatuko ditugu, gure Euskal Herria berdea hormigoiz betetzen badigute?

Otsailaren 3an azokara hurbiltzea gomendatzen dizuet; era berean, talo, sagardo, gazta eta txakolin trago artean burua altxatu eta Mendiola auzoan, nekazaritza eta abeltzaintza hain "sutsuki" defendatzen duten PNVko agintari horiek zer sarraski egiten ari diren ikustera gonbidatzen zaituztet. Hurbildu bertara, ongietorri beroa egingo dizuete, urtarrilaren 17an Urbinan egin ziguten ongietorri ezin beroagoaren antzera.

Gorka Erdoiza (Durango)

Klik batean @



Putzuz betetako bidea

Astekariko irakurle batek Garaira doan bidearen egoeraz ohartarazi gaitu. Argazkia ateratzera joan garenean, urez betetako hamaika zulo topatu dogu. Abadiño Gerediaga auzoko bizilagunek eta garaitarrek bide hau behar den moduan jartzeko "sarri eskatu dabela" jakitera emon deuskue.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango -
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko urtarrilaren 30a - 8. urtea - 316 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Lurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.


GEHIGARRIA[>]

anboto | 2009ko urtarrilaren 30a, barikua

SAN BLAS 09




abadiño



ERRALDE

HILTEGIA

Askatasun etorbidea 48 • 48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48 • Fax: +34 94 621 77 15





anboto

Durungaldeko usaina ezin deusugu transmititu, baina Durungaldea entzun, ukitu eta ikusteko...

anboto komunikabideak

HOTEL
★ ★
an
BlaS "Arrati 2000" Jatetxea

946 814 200 - 946 814 516
Faxa: 946 814 200
Bilbo-Donosti errepidea 32. Km
48 220 MATIENA - ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA



ARRATIAUNDI S.L.
OKINDEGIA GOZOTEGIA

ASTEGUNETAN
08:30etik 14:00etara
16:30etik 20:00etara
ZAPATU, DOMEKA ETA JAIEGUNETAN
09:00etatik 14:00etara
17:00etatik 19:00etara

ESTANKOA
Arrinda Mondragon

Alfredo Baeschlin kalea, 7 • 48220 Abadiño
Tel.: 94 620 13 85

salmenta, konponketa eta boutiquea

MOTOS TABIRA

konponketa zentroa ofiziala
BRUNEL • SCORPION • ALPI • KAWASAKI • PIAGGIO

Pol. Arriba, 10-6 gabaria 48220 MATIENA-Abadiño
Tel: 94 681 4068
www.motostabira.com



MURUETA BASERRIA

- 5 logela bikoitz
- komuna
- telebista
- telefonia

bisitariaren gozamenarako beharrezkoak diren erosotasun guztiak.

Tel.: 94 623 26 10 • Sakelakoa: 658 747 471
Faxa: 94 620 38 40 MURUETA, 4 48220 ABADIÑO
e-mail: karmentera@terra.es



Iturrizko kalea, 7
Abadiño
Tfnua: 94 603 01 09

LARRANO TABERNA

Txutxes denda

TXIRRI TXIRRI

zabalik asteburu eta jaiegunetan
ZeleTabe 8, behea. Abadiño
Tel. 649 40 49 80



Oregi Taberna

94 681 07 85
Matierna (Abadiño)



Baserrian ekoizitako produktuak kalera



Iban Gorriti

Ortuariak, ganadua, landareak, makinak eta artisauek landutako produktuak erakutsi eta saltzeko gunea

Nekazarien eta artisauen lanaren emaitzak ikusi, dastatu, usaindu eta erosteko aukera eskainiko dau, urteroko ohi-turan, Sanblasetako feriak.

Durungaldeko hainbat herritan landutako nekazal produktuak herrian saltzera batu-ko dira baserritarrak otsailaren 3an Abadiñora. Guztira, 92 baserritan landutako ortuariak izango dira San Blas Feriarako atonduko ditueen 84 erakusmahai kolorez betetzen: gaztaia salduko daben 14 postu, ogi eta pastelen 13, labeldun eztidun 7, denetariko ortuariak salduko ditueen 10, sagardoa eta txakolina eroango daben 8 eta bestelako produktuak izango ditueen beste 20 erakus-

mahai inguruk osatuko dabe azoka.

Postuetariko zazpitan izango dira aurtien Abadiñoko baserrietan ekoizitako produktuak; Abadiñoko ezitia, gaztaia eta piperrak eroango ditue, besteak beste.

Baserritarren hartu-emonerako plaza proposa

Ganaduari jagokonez, Abadiñoko baserrietatik kalera eroango ditue erakusketarako -eta kasua balitz, saltzeko- hainbat arrazatako 200 buru. Beste hainbeste izango dira kanpotik ekarritakoak. Salerosketak egiteko baino, abeltzainen arteko hartu-emonen sustatzeko plaza izaten da Sanblasetako Feria: tratua abiatzeko lekua da baserritar askorendako.

Ikusi edo eroatera joaten direnendako be askotariko aukerak izango dira Sanblasetako Ferian: adibide baterako, Arbaso elkarteak antolatutako Artisautza Azokan 30 artisauek izango dira euren lana erakutsi eta saltzen.

92 baserritan landutako ortuariak izango dira Sanblasetako Nekazal Azokan salgai

ERLIA
CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com

- Obra-bondakinen bilketa hainbat neurriko edukiontzietan
- Geure zabortagia
- Agregakinen banaketa
- Industria eta eraikuntzako ondar bizigabeen kudeaketa

646 247 350
946 814 107

Arta suzua, z/g • 48220 ABADIÑO
Fax: 946 810 204

Juan Beristain

NEKAZARITZA TRESNAK

San Blas egunean
Abadiñon topatuko gaituztu

Oidor Berriozabalbeitia, 14
48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel.-Faxa: 94 623 18 03

Indegia

elebe

Iturrizko kalea 2 behea
48220 abadiño
94 655 01 05

Pilota protagonista nagusi kirol arloan

San Blas Txapelketako azken txanpa jaien barruan jokatu da; finala otsailaren 8an da Tornosolon

Sanblasetan Tornosolo trinketa kirol ekitaldien erdigune bihurtu da. Domeka honetan, San Blas Pilota Txapelketako final laurdenak jokatu ditue mutilek esku-huska eta neskek palan. Saikatuak finalerdietako lehiak izango ditue datorren barikuan, eta finalak, modalitate bietan, otsailaren 8an jokatuko ditue, 10:30ean hasita.

Tornosolon esku-huskako eta palako lehiak jokatu dira; klub enartekoa be jokatu da frontoian

Esku-pilotak be izango dau bere tartea Zelaietako frontoian. Izan be, otsailaren 14an Euskadiko Klub en Artek Pilota Txapelketari jagokon jardunaldia jokatu dabe han. Abadiñoako Atxarte pilota eskolako ordezkariak Gasteizko Txukun-Lakua eskolakoak izango ditue aurkari.

Sanblasetako kirol egitarauan, pilotaz gainera, beste hitzordu gomendagarri bi be badaukaguz. Etzi, eskola arteko krosa jokatu da Astola auzoan eratu daben zirkuituan, 11:00etan hasita. Hantxe erabakiko da aurtengo Bizkaiko txapelduna nor den. Azkenik, martitzen eguerdian, herri-kirolak izango dira ikusgai Zelaietako Probalekuan.

Ondo pasatzeko hamaika aukera



San Blas jaietako egitarauak gustu guztiak asetzeko aukerak eskaintzen deuskuz. Hamabi Harri auzo elkarteak Abadiño auzorik auzo ezagutzeko ibilbidea antolatuko dau urtarrilaren 1ean, 08:30ean Gerediagako baselizatik abiatuta.

Otsailaren 4an, Abadiñoako Done Zezili Abesbatzak Santa Agedako koplak abestuko ditu herriko kaleetan zehar.

Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz bertso afaria dogu gaur gauean

Musikak be bere txokoa izango dau jaietan. Gaztetxeak antolatuta, Jabi Gonzalez kantautoreak emanaldia eskainiko dau urtarrilaren 31n. Bigarren asteburuan Gorroto, Golpe de Estado, Nuevo Catecismo Catolico, Descontrol, Skovers, Egurre eta kitto eta DJ Bull arituko

Korri eta Xalo pailazo en emanaldiak umez beteko dau Txanporta kultur etxea otsailaren 7an.

Ohiturari eutsiz, XXI. Burduntziko bildots txapelketa eta txakolin erakusketan antolatuko ditue otsailaren 14an. Txapelketako bildotsekin bazkaria egingo dabe Probalekuan.



Kepa Aginako

BANAKETAK MIOTA S.L.

Miota, 6 behea - 48230 ELORRIO
Tel.: 94 623 18 92 - Faxe: 94 682 06 51

MIKEL HARATEGIA

Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452
48220 ABADIÑO

LEANIZ TRESNAK **SAME**

BASERRI TRESNAK salmenta eta konponketa

Orain Suministros Arga **LEANIZ TRESNAK** darama

Leaniz auzoa - 48230 ELORRIO - Bizkaia

94 623 15 43

SERRATU S.L.

GALDARAGINTZA ETA ITXITURAK

Astola, 48 48220 ABADIÑO Bizkaia
Tel.: 94 620 18 37
Fax: 94 681 86 35

Enpresetan manteniementua

Publierreportajea



AMALURRA



Urkiolan elurrarekin jolastea gustoko duzu?
¿Te gusta jugar con la nieve en Urkiola?

Orduan, hau saihestea zure esku dago!
Entonces, ¡evitar esto está en tus manos!

- Eraman itzazu etxera elurrarekin jolasteko ekarri dituzun plastikook.
- Bestela, aparkalekuetan narri ditzaitezun edukiontzietan botu.
- Llévate a casa los plásticos que has traído para jugar con la nieve.
- Si no, deposítalos en los contenedores que encontrarás en los aparcamientos.

Eramazu zeurea etxera!
¡Llévatelo de vuelta!

Dibertsinoa, Urkiolako ingurua zaintzeko arduragaz lotuta

Toki-Alai interpretazio zentroak kanpaina berezia hasi dau jentea kontzientziazteko, elur sasoian ondoren Urkiola zaborrez beteta agertu ez daiten; oraingoz erantzun ona izan dau

Azkeneko hilabeteetako eguraldiak arazo ugari ekarri ditu gurera, baina guztia ez da txarrerako izan. Ohi den legez, elurra agertu da gure mendi eta landetan, eta askok dibertsinorako atxaki moduan erabili dabe. Gure eskualdean be jente ugari jo dau mendi magaletara zakuak edo lerak hartuta; Urkiola da horren adibide argiena. Jente kopuru handi horrek, baina, ezusteko batzuk sortu ditu: jolaserako erabilitako hainbat tresna agertu da bazterretan botata. Hori dela-eta, kanpaina berri bat abiatu dabe Urkiolako Toki-Alai zentrokoek.

Zarama leku askotan

Ehunka pertsona hurbiltzen da Urkiolara elurra egiten dauenean, eta kanpaina honen helburua hurrengo baten datozenei ingu-

rua zaintzeko neurriak azaltzea da. Izan be, bertaratzen den jentek edozein tramankulu hartzen dau jostailu moduan elurretan behera joateko: eskiak, erraketak, lerak, zabor-poltsak edo beste plastikoa mota batzuk. Dibertsinoa amaitzen denean, horreetako askok ez dabe ezertarako balio, apurtu edo egoera txarrean geratu direlako. Ondorioz, batzuek bertan izten ditue, baina ez zaborrontzietan.

Egoera aldatu guran

Elurak irauten dauen bitartean, zabor hori guztia nahiko ezkutuan geratzen da; kontua aldatu egiten da, baina, elurra urtzen hasten denean, eta jentek itzitako zarama leku askotan agertzen da: landetan, hesietan, basoetan, aparkalekuetan...

Urteetan zehar, Urkiolako parke naturaleko inguruak zaborrez beteta ikusi izan doguz elurteen ondoren, eta martxan jarritako kontzientziazte kanpaina honek egoera hori aldatzea dau helburu.

Askotariko kartel eta eskuorrien bitartez, elurra urtutakoan parke naturala zelan geratzen den azaldu gura jako jenteari. Horren inguruan hausnarketa egin eta erabiltzen ditueen plastikoa zein bestelakoak edukiontzietara botatzera edo eurekin eroteratu animatu gura ditue antolatzailerik bisitariak.

Erantzun ona

Aurtengo azken elurtean kanpaina honen eragina nabaritu dabe. Izan be, inoiz baino jente gehiago ibili da Urkiolan; batez be, aste-

buruetan. Egun horreen ondoren, erabilitako tresnek sortutako zabor gehiena zaborrontzietan agertu da, han eta hemen botata be aurkitu ditueen arren plastikoa edo lera batzuk. Hori bai, azken urteekin konparatuz gero, askoz be gitxiago.

Beraz, kanpaina honek erantzun ona izan dau azken asteetan. Toki-Alai zentrokoek, eskerak emoteagaz batera, bide beretik jarraitzeko eskatu gura deutse etorkizunean Urkiolara hurbilduko direnei. Datozen asteetan be, ez da arraroa izango parke naturala zuriz jantzita ikustea, eta, beraz, aukera aparta izan leiteke elurretan ibili eta jolasteko.

Guztion ardura da, naturagaz gozatzeagaz batera, ingurumengazko errespetua izan eta zentzuz jokatzea.

Urteetan zehar, Urkiolako Parke Naturaleko inguruak zaborrez beteta ikusi izan doguz elurteen ondoren

Plastiko zein bestelakoak edukiontzietara botatzera edo eurekin eroteratu animatu gura ditue bisitariak

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 30ean, 21:00etan

BIZIPENAK UMORE BILAKARAZIZ

Era zorrotzean, ironia eta umorez beteta, bere autobiografia erakutsiko dau Dani Pérezek Zornotza Aretoan. Ispiluaren beste aldera pasatuko da, geroago eta konplikatua den munduaren ikuspegi berezia erakusteko. Baleiteke *Los ángeles no tienen hélices* bere lanik pertsonalena izatea; ondoen identifikatzen dauena. Izan be, oroitzenetara jo dau, bizipenak, magia lez, umore bilakarazteko.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> Umeendako antzerkia: 'Kartoi Biraka' (Markeliñe).

Urtarrilaren 30ean, 17:30ean, Kultur Etxean.



DURANGO

>> 'Abraham y Samuel' (Karmakros antzerki taldea-Gipuzkoa),

otsailaren 1ean, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.



ERMUA

>> 'Humor al dente' (Luciano Federico), urtarrilaren 30ean, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

>> Umeendako antzerkia: 'Ateak edonon sortzen direnean' (Pasadas las 4), urtarrilaren 31n, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> 'Los ángeles no tienen hélices' (Dani Perez), urtarrilaren 30ean, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

BERTSOAK

ABADIÑO

>> Bertso-afaria, urtarrilaren 30ean, 21:30ean, Abadiño Gaztetxean. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak jardungo dabe. Tramagile lanetan, barriz, Josu Goikoetxeak. Txartelak Larrano

tabernan eta Oregi jatean lortu leitekez. Abadiño Berts Eskolak



eta Abadiño Udalak eratuta, San Blas jaiak direla-eta.

BESTEAK

DURANGO

>> Txiki Parka, Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarrileko, otsailera eta martxoaren asteburuetan Udaleko Kultura Sailak eratuta.

ERMUA

>> 'Ermuan kantuan' kalejira. Urtarrilaren 31n, 12:30ean, Orbe Kardinala plazatik irtenda. Euskal Birusa euskara elkarteak eratuta.

>> Agata Deunaren kalejira. Otsailaren 4an, 18:00etan.

IURRETA

>> Santa Ageda bezpera. Etxez etxe koplakantari irtengo dabe Aita San Migel plazatik, 18:00etan. Mikel Deuna kultur elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA

>> 'Erdi olgetan': Umeentzat aisialdi programa (6-10 urte). urtarrilaren 30ean, Zelaieta zentroan.

DANTZA

DURANGO

>> Dantza tailerra: 'Dantzaldi'

ibiltaria' (AIKO taldea). Otsailaren 3an, 19:30ean, Plateruenean.

DEIAK

DURANGO

>> Korrika Batzordea. Eskola eta elkartei begira, otsailaren 4an, 19:30ean, AEK-Abizari euskaltegian.

>> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

>> Bost eurogaz saritutako + Dendak elkarteko establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriaren 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazioak kobratzeko, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> 'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoek elkarteak. Kultur Etxean.

DURANGO

>> Geroa antzerki taldeari omenaldi erakusketa. Otsailaren 7a bitartean, San Agustin kulturgunean. Egunero, 18:00etatik 20:00etara.

>> 'La aventura con el otro. Bestearekin aventura'. Leo Simoesen argazkiak. Otsailaren 1a arte, Arte eta Historia Museoa.

ERMUA

>> Margoak. Mugartea taldea. Urtarrilaren 31 bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> 'Muros de la vergüenza'. Sonia Ruedaren argazkiak. Urtarrilaren 31 bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROKAK

DURANGALDEA

>> Guraso Eskolak, otsailaren lehenengo astean hasita (90 minutuko zortzi sesino), Durangaldeko hezkuntza zentroko udal lokaletan. Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Prebentziorako Sailean (Durangon) emon leiteke izena, (94 620 05 20).

>> 'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?', emakumeendako antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailaren hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo dira, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak, astelehen edo eguenetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

DURANGO

>> Dendak Merkatariendako euskara ikastaroak. Hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei zuzenduta. Udaleko Euskara Sailak eraturako ikastaroak dira. Izena emoteke epea zabalik dago otsailaren 6a bitartean (94 603 00 16 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

>> Ostalariendako euskara ikastaroak. Merkatariendako azken hiru urteetan eraturako ikastaroen emaitzak ikusita, euskara ikasteko interesa daukien ostalarien beharrei erantzuteko asmoz antolatu ditu eskolok Udaleko Euskara Sailak. Hasita dago matrikulatzeko epea, otsailaren 6a bitartean. Durangoko ostalaritza establezimenduren batean lanean diharduen edonork parte hartu leike, eta hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei begira (94 603 0016 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

>> Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki hazteko', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'. Izena emoteke, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

IURRETA

>> Ikima tailerrak: Komiki tailerra (Anartz Aranguena), urtarrilaren 30ean, 17:30ean, Liburutegian.

IPUINAK

DURANGO

>> Virginia Imaz ipuin-kontalaria, urtarrilaren 31n, Udal Liburutegian: 3-5 urte bitarteko umeendako saioa, 17:00etan; sei urtetik gorakoendako saioa, 17:30ean.



>> Helduendako ipuin-kontalariak: 'Munduko ahotsak': Mercedes Carrión (Peru), urtarrilaren 31n, 20:00etan, Udal Liburutegian.

IURRETA

>> Helduendako ipuin kontalaria: 'El hombre avión' Ze Jam Afaneren eskutik (Camerún), urtarrilaren 30ean, 20:00etan, Liburutegian.

ZALDIBAR

>> 'Itsamenez' (Rosa Martínez ipuin kontalaria) txotxongilo ikuskizuna, urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Udal Liburutegian (Lau eta bederatzi urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta).



JAIAK

ABADIÑO

San Blas

>> Idi-probak, urtarrilaren 30ean 22:00etan, eta otsailaren 1ean 17:00etan. Otsailaren 3an, San Blas egunez, 17:00etan eta 22:00etan izango dira idi-demak, San Blas Txiki egunez, hilaren 4an, barriz, 17:00etan.

>> Kubako iraultzaren 50. urteurrenari buruzko berbaldia, urtarrilaren 30ean, 18:30ean, Gaztetxean.

>> 'Etxe berri de luxe' antzerkia, urtarrilaren 31n, 18:30ean, Gaztetxean. Jabi Gutierrez kantautorea, 22:30ean.

>> 'Abadiño auzorik auzo' ibaldia, otsailaren 1ean, 09:00etan. Gerediagako Salbadore baselizatik irtengo dabe eta Txanporta kultur etxean amaitu, 13:00ak inguruan. Familia argazkia egingo da irteeran.

>> San Blas 2009 Pilota Txapelketa final laurdenak, otsailaren 1ean, 10:15ean, Tornosolo trinketean: esku-huska (mutilak) eta pala (neskak). Eskola arteko krosa (Bizkaiko Txapelketa), Astolan.

>> AHTaren aurkako manifestazioa, otsailaren 3an, 13:00ean, Gaztetxean.

>> Nekazaritza, ganadu, baserri tresneria eta artisautza azoka,



Larraitz Alonso Amezua

"Une honeetan familiaren saminagaz bat egiten dogu"

Orraitio Euskara Elkarte

Mallabia, 2009ko urtarrilaren 26an

otsailaren 3an, goiz osoan. Era berean, XVII. Abelburu erakusketa.

- » **Herriko txistularien kalejira**, otsailaren 3an, 09:00etan, eta, 10:30ean, **umeendako tailerrak**, Txanporta kultur etxeko arkupeetan.
- » **Meza nagusia**, otsailaren 3an, 11:00etan, San Trokaz elizan, eta, 12:00etan, Ferialeku plazan **bertsolaria: Etxahun Lekue, Angel Mari Peñagarikano eta Eñaut Uruburu**.
- » **Herri-kirolak**, otsailaren 3an, 12:30ean, Probalekuan. Gero, **Nekazaritza Azokako sari banaketa**. Ferialeku plazan, Lotxo taldeagaz erromeria 16:30ean.
- » **Abadiñoako Done Zezili abesbatza-ren eskutik Santa Ageda koplak**, otsailaren 4an, 19:30ean.

JARDUNALDIA

BERRIZ

- » **Desarrollismoari buruzkoak: 'Desarrollismoaren eraginak Durangaldean: AHT, Durango-Beasain, harrobiak, trenaren lurperatzea...' txostenaren aurkezpena**, urtarrilaren 30ean, 19:00etan, Hiltegi gaztetxean. Gero, **txokolatada eta AHTari buruzko bideoa**. Kantautoreen kontzertua, 22:30ean.
- » **Desarrollismoari buruzkoak: Erresistentzia tailerra**, urtarrilaren 31n, 11:30ean, Hiltegiaren. **Bazkaria** 14:30ean, eta 17:30ean, **berbaldia: 'Borroka antidesarrollisten eskarmentuak eta aurreikuspegiak' (Mikel Alvarez + Julio Villanueva)**. 22:00etan, **antzerkia: 'El Trinomio Kaotiko' (Teatro Terror)** eta **'Klonstrofobiak mendian' (Zurrumuru)**.

LEHIAKETAK

ABADIÑO

- » **San Blas eguneko XIII. Argazki Rallya**, otsailaren 3an, 09:00etan.

Txartelen deskarga, Txanporta kultur etxean, 13:00etatik 14:00etara. Kopurua mugatua da: 21 lagun. Izen-emotea 3 euro. Sariak: 200 euro eta garaikurra gai bakotzeko onenari; herriko onenari 150 euro.

BERRIZ

- » **Emakumeen nazinoarteko egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a: Udaleko erregistroan edo Udal Liburutegian. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean irabazleak argazki kamara digitala lortuko dau (94 682 40 36-(6) / berdintasuna@berriz.org).

ERMUA

- » **2009ko ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa jarri dabe martxan**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 5a, Udaleko Kultura Sailean. Saria: 450 euro.

LITERATURA

IURRETA

- » **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenean, 18:30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe, aurretik eskatuz gero. (94 681 27 26 / biblioteca@iurreta.net).

MUSIKA

DURANGO

- » **Los Coronas**, urtarrilaren 31n, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian. **Lam Rim**, otsailaren 5ean.



ZINE-KLUBA

ELORRIO

- » **Hilean behin.dok: '1973 revoluciones por minuto'**, otsailaren 5ean, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

- » **Umeendako zinema: 'Mamma Mia'**, otsailaren 1ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

- » **Zine erotikoaren zikloa: 'Shortbus'**, otsailaren 5ean, 21:30ean, Lobiano kulturgunean

ZORNOTZA

- » **'De la escena y de la música al cine' zikloa: 'No direction home: Bob Dylan' pelikula**, otsailaren 3an, 20:15ean, Zornotza Aretuan.



Urtarrilaren 31n, 22:00etan

LOS CORONAS, AZKEN DISKA KALERATU BARRI

'El baile final...' urte barriagaz batera argitaratutako azken lana aurkeztuko dau Durangoko Plateruena kafe antzokian Los Coronas taldeak. Bittersweet Recordsen bitartez kaleratu dabe Andoingo Garate estudioetan grabatutako diskoa. Nahasketak egiteko Amerikako Estatu Batuetara jo dau taldeak. Kanta barri eta zaharrez gozatzeko aukera izango dabe, bihar, taldearen jarraitzaileek.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Valkiria
Zuzendaria: Bryan Singer
barikua 30: 19:00 / 22:00
zapateria 31: 19:30 / 22:30
domeka 1: 19:30 / 22:30
astelehena 2: 19:00 / 22:00
martitzena 3: 20:00



Umeendako zinema

City of Ember

zapateria 31: 17:00
domeka 1: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Appaloosa

Zuzendaria: Ed Harris
zapateria 31: 22:30
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00



Umeendako zinema

Madagascar 2

domeka 1: 17:30

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Cuestion de honor

Zuzendaria: Gavin O'Connor
zapateria 31: 22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00



Umeendako zinema

El valiente Desperaux

domeka 1: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 30**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Zapateria, 31**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Etxebarria / Gaztelumendi / Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego / San Roma / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
- Domeka, 1**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Astelehena, 2**
09:00-09:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
- Martitzena, 3**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Eguaztiena, 4**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruet Torre 2C - Durango)
- Eguena, 5**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matiena606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte ..670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 19° BARIKUA**
- Hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, halan be, ez da euririk espero. Egunaren amaieran areagotu egingo dira, fronte berri bat hurbilduko da-eta. Hego-haizea bizi ibiliko da eta tenperaturak gora jarraituko dau.
- 16° ZAPATUA**
- Fronte hotz batek hodeiak ugaritu eta euria itziko dau. Elur-kotak behera egingo dau berriro, 1.200m inguruan kokatuz. Tenperaturak behera egingo dau. Mendebaldeko haizea ibiliko da.
- 16° DOMEKA**
- 8° ASTELEHENA**
- 7° MARTITZENA**

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidetza@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

KIROLAK >



Kepa Aginako

Txirrindularitza sustatzen 30 urtean

Elrorriko Txirrindulari Elkarteak 30 urte beteko ditu aurten. Bide luze horretan gazteengan txirrindularitza sustatzen jardun dute, ekin eta ekin, Gaurisa-Renault bidelagun zutela (29 urte babesletzan). Eta lanak bere fruituak eman ditu. Esaterako, iaz ziklo krossean taldekako Spiuk Torneoa irabazi zuten; eurak izan ziren denboraldiko talderik erregularrena. Errepidean ere garai-pen bi lortu zituzten.

Elorrio Txirrindulari Elkarteak kadeteen mailan bakarrik du taldea. Gaztetxoekin lan egin nahi du. Aspaldi gazte mailako taldea ere bazuten, baina Ermuko taldearekin adostutako akordioa eta gero, lana banatzea erabaki zuten. Ermuak Elorriora bidaliko zituen bere kadeteak, eta alde-erantziz. "Emitza onak" eman dituen sistema dela adierazi du Joseba Gorostiza txirrindulari elkartearen lehendakariak.

Errepidean eta ziklo-krossean, modalitate bietan parte hartzen dute. Iazko urtean Peio Goikoetxeak lasterketa bi irabazi zituen; ziklo-krossean, aipatu dugun moduan, talderik onena izan ziren. Bizkaitik kanpora ere ibiltzen dira sarritan. Esaterako, Valladolideko Espainiako Txapelketan parte hartu dute oraintsu, eta Gipuzkoan eta Araban ere izaten dituzte lasterketak, noizetik noizera.

Kadete mailako taldea dute, eta errepidean zein ziklo-krossean aritzen dira

Ziklo-krosseko denboraldia oso gogorra izan denez, datorren aste bietan atseden hartuko dute; ondoren hasiko dira denboraldi berria prestatzen. Aurten iaz baino lau txirrindulari gehiago daude taldean.

Belodromoan probak egiten
Aurten baliteke modalitate berri bati ekitea: belodromoari. Entrenamenduei ekiten dietenean, Berrizko belodromoan probak egingo dituzte: "Gazteak gustura badabilta eta moldatzen badira, polita izango litzateke belodromoan ere korritzea. Pausu berri bat ematea litzateke. Gainera, konfidantza dut ondo moldatuko direla", dio Gorostizak.

Aurreikuspenak betetzen badira, Zallako, Trapagarango eta Berrizko belodromoetan jokatzen diren lasterketetan parte hartzeko asmoa dute. ■ J.D.

24 Hilabete bi eta gero, garaipena

Durangoko Kulturalak zazpi partidu zerratuz irabazi gabe. Alavesen filialaren kontrako garaipena bolada on eta oparoaren mugarri izatea nahi dute Txintxurretaren mutilek.

25 Tabirakok agur esan dio igoerari

Jaitsiera fasea jokatu beharko du Tabirakok. Hori ekiditeko geratzen diren lau partiduak irabazi beharko litzuzke eta arerioen hutsak astero itxaron. Ez dirudi gertatuko denik.

Defentsan gotor eta erasoan kamuts dabil orain Kulturala

Zazpi jardunaldi irabazi barik egon ondoren, Alaves Bren aurka bolada txarra hautsi zuten. Bihar, Leioaren kontra jokatuko dute

Denboraldi hasierako eta oraingo Kulturalak ez dute zerikusirik. Lehen erasokorak ziren eta bel-durrik gabe egiten zuten gora; gol asko egiten zituzten, baina baita jaso ere. Ate aurrean gehien asmatzen zuena, huraxe garaile. Igartzen da harrezkero defentsako lana asko landu dutela, baina horrek, nahita edo nahi gabe, eragina izan du erasoko jokoan. Gol gutxi jasotzen dituzte, baina jada ez dira hain golegileak.

Emaitzei dagokionez, Txintxurretaren mutilak tunel beltzetik argitara irten ziren iragan asteburuan. Alaves Bri 0-1 irabazi aurretik, zazpi jardunaldi zeramatzaten jarraian hiru puntuak batu gabe (lau porrot eta hiru berdinketa). Beraz, Gasteizen partidua amaituta, Txintxurretak "mutilak aldagelan pozik eta aldarte onean" zeudela esatea ez da harritzekoa. Hilabete biko lehorteari amaiera eman zioten.

Garaipenari jarraipena ematea da Leioaren aurka bihar duten lehiaren helburua. Horretarako, ate aurrean gehiago asmatzea komeni da. Alavesi, esaterako, penaltiz irabazi zioten.

Dena dela, Txintxurretak ez du uste taldeak taktika defentsiboa darabilenik: "Aukerak izaten ditugu, baina asko kostatzen zaigu gola egitea. Alaves Bren aurka hiru aukera garbi izan genituen. Liga hasieran sartu egiten

"Taldeak ez du joera defentsiboa; kontua da ate aurrean ez dugula lehen adina asmatzen"

genituen, baina orain ez". Landu beharrekoa golegilearen usaimena da, Txintxurretaren ustez.

Jakina da konfidantza oso faktore garrantzitsua dela edozein kiroletan. Futbolearen ere bai. Konfidantzarik gabe dagoenarentzat atekak pospolo kaxaren tamaina izaten du; konfidantza duenak, aldiz, saskibaloian ere jokatuko luke hankekin. Alavesen kontrako garaipenari hortxe aurkitu behar diote balioa. Jokalariak biziberritu egin behar dute barrutik, eta sekula falta izan ez den prestutasunari sinesmena gehitu.

Durangarrak sailkapenaren erdian daude, 27 puntuekin. Beheko postuak bezain urrun dituzte goikoak. Leioa atzetik dute, baina partidu bat gutxiagorekin, Arenasen kontra jokatuko beharrekoa bertan behera geratu zelako haizearen ondorioz. ■ J.D.

Kulturalak zazpi lehia zeramatzan irabazi gabe; lau porrot eta hiru berdinketa



Gasteizen hamarrek aritu ziren minutu askoan. Judit Fernandez

IkerSaenz de la Cuesta
• Areto-futbol entrenatzailea



Areto-futbolaren garapena

Azken urteetan areto-futbola nabarmen aldatu da, bai komunikabideetan emondako hedapenean bai arautegiari jagokonez. Aldaketa horreen ondorioz, futbolaren 'anai txikia' ikusgarriago eta erakargarriago bilakatu da, eta bere jarraipena gero eta handiagoa da.

Durungaldea ez da alde batera geratu, eta aldaketa horren ondorioz fitxa federatibo asko egin da, talde berri asko sortuz, eta, orain, duela hamarkada bi zegoenaz konparatuta, egoera oso desberdina da.

Orain Bizkaitik kanpora jokatzen dabilen taldeak daukaguz: (Sasikoa A eta Elorrioko Buskanta A Nazional B mailan; Sasikoa B Euskal Ligan) eta beste asko bere pausoak jarraitzeko ahaleginetan dabilz (Elorrioko B eta Kuruziaga A Preferenten; Presion Break, Mallabia Bastida, Abadiño Gatzetxe eta Abadiño Lagun 1. Erregionalean; Gu Lagunak, Kuruziaga B, Dantxari, Hasi Durango eta Mendibeltz 2. Erregionalean).

